

GUaiXE.eus



**Eneko Lazkoz
Bertso Egunean**



Kultura >> 14

**Mendi ibilbideen sarea
mantentzeko 2015ean diru-
laguntza emanen duela azaldu du
Nafarroako Gobernuak**



Kirolak >> 11



**D eredua,
eskertuko
dizute**

>>5

**Sakanatik
sustatutako
Laguntza
Txakurren
Legea onartuta**

>>3

**Sakanan
inplikatzeko
eskatu diote
Gobernuari**

>>6



Amaia Araiz ikerlaria Urdiaingo errota datuak hartzen. UTZITAKOIA

Ibarreko energia ahalmena ikertzen

>>7

**Burunda aldeko Gizarte
Zerbitzuak programa
pilotu batean**

>>9

**Festen data zehazteko
batzarra eta galdeketa
Altsasun**

>>9



**Izurdiagako trenbide
pasagunea kentzeko
proiektua onartuta**

>>5



**Fran Balda
askatzeko
eskatuz
manifestazioa**

>>8



**Angel Antonio
Agirreren
erakusketa
Iortian**

>>15



**Medikuntza
eta genero
bereizketaz
Aldasororekin**

>>3

ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingresatuta egin daiteke.

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



LEHALSA

Leiho-Isolatuzaileak • Aluminioa • P.V.C • Mistoak



Planeta urdinerako
Green Technology

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zeharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Maitane Moreno Mendoza
Gure printzesari, ZORIONAK familiaren partez. Muxu handi bat.



Natalia Martin
ZORIONAK amatxo!
Berandu baina gogoratu gara. Muxu handi bat familiaren partez eta batez ere, Mararen partez.



Haize
ONGI ETORRI HAI-ZE! Ta zorionak Nagore, Boltio ta Amets, zuen lagunengandik partez!
Eutsi goiari ta jo ta ke!!!

ilbeltzak-otsailak

29-5

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Zinema

Joven y bonita. Ilbeltzaren 30ean, ostiralean, 21:45ean eta otsailaren 1ean, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Magia a la luz de la Luna. Ilbeltzaren 30ean, ostiralean, 22:00etan eta otsailaren 1ean, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Las aventuras del pequeño fantasma. Otsailaren 1ean, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Rastros de sandalo. Otsailaren 5ean, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Ikuslearen eguna, 3 euro.



Mendi irteerak

Auza. Otsailaren 1ean, domekan. Altsasuko Mendigoizaleak.

Bizikleta irteerak

Santi espiritu. Otsailaren 1ean, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 40 km. **Burunda klubeko mendi bizikleta taldea.**

Irteerak

Zamartze. Ilbeltzaren 31n, larunbatean, 10:30ean Bakaikun eta 11:00etan Uharte Arakilgo monasterioan. **Bakaikuko Kultura Batzordea.**

Erakusketak

Ibilbidea. Otsailaren 8ra arte 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. **Angel Antonio Agirre.**

Hitzaldiak

Nafarroako gaurkotatua eta Geroa Bairen proiektua. Ilbeltzaren 30ean, ostiralean, 19:30ean Irurtzungo udaletxean. **Hizlariak: Uxue Barkos eta Manu Aierdi.**

Axioren bizitzari buruzko dokumentalaz. Ilbeltzaren 31n, larunbatean, 13:00etan Ziordiko udaletxean. **Hizlariak: dokumentalaren sustatzaileak.**

Literatura

La lluvia amarilla. Ilbeltzaren 30ean, ostiralean, 21:00etan Olatzagutiko liburutegian. **Irakurle taldea.**

Tailerrak

Euskal dantza. Ilbeltzaren 31n, larunbatean, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Bestelakoak

Herri programaren zirriborro aurkezpena. Ilbeltzaren 31n, larunbatean, 12:00etan Uharte Arakilgo udaletxean. Ondoren bazkaria. **EHBildu.**

Euskal Herriko Mus Txapelketa. Ilbeltzaren 31n, larunbatean, 17:00etan Lakuntzako Sorginak tabernan. **Kanporaketa.**

Zorri azoka, merkatu soziala. Otsailaren 1ean, igandean, 11:30etik 14:30era Etxarri Aranazko estalopean.

Inauteriak prestatzen. Otsailaren 4an, asteazkenean, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Ilbeltzaren 30ean, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. **Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.**

Konponbideari erasorik ez. Fran etxera! Otsailaren 1ean, igandean, 18:00etan, Arbizuko plazatik.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Otsailaren 1ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Euskararen Ginkanan parte hartzera animatu dute



www.euskararenginkana.net web gunean dago informazio guztia

Kutxa Ekoguneak, Azkue Fundazioarekin elkarlanean, Euskararen Ginkanaren 4. edizioa antolatu du, euskaraz eta euskararekin dibertitzeko. Euskaltzaleen Topagunea izango da lehiaketaren koordinatzailea. Aurtengo gai nagusia IKTak (Informazio eta Komunikazio Teknologia) eta ekologia izango da eta, beraz, taldeek gauditu beharreko probak eta galderak mundu digitalean euskarak eta ekologiak duen presentziari lotuak izango dira. Euskarak, hizkuntza gutxiagotua izanik ere, sarean duen presentzia ez da makala, nabigazio hizkuntzen artean euskarak 44. lekua baitauka mundu mailan.

Lehiaketa bi fasetan gauzatuko da: lehengo otsailaren 19an hasi eta martxoaren 26an bukatuko da, eta

www.euskararenginkana.net web gunean astero argitaratuko diren probak gauditu beharko dituzte taldeek. Bigarren fasea apirilaren 18ko final handia izango da, Donostiako Ekogunea parkean. Lehen fasean puntu gehien lortu dituzten 4 talde parte-hartzaileak lehiatuko dira.

Parte hartzeko

Parte-hartzea taldekakoa izango da, 4-6 laguneko taldeak, eta euskararen aldeko proiekturen bat gauzatu edo babesten duen talde, elkarte edo eragile bat ordezkatu beharko dute. Izena ematea zabalik dago otsailaren 18ra arte www.euskararenginkana.net web gunean. Taldeek bideo bat aurkeztu beharko dute, euren burua eta babestu nahi duten euskararen aldeko egitasmoa aurkezteko. Lehen saria euskararen aldeko proiektu baterako 3.000 euro izanen dira.

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

beleixe  **online**
www.guaixe.eus

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA

ASTEKO ERREPASOA:

albisteak, kirolak,

Aintzane Iriberrirekin energia berriztagarri
buruzko ikerketaz eta Jatorman enpresako

Marcos Reparaz...

Esataria: *Alfredo*

>> Altsasu

Elena Aldasoro: «gizonezkoei aplikatzen zaien medikuntza emakumezkoei aplikatzen zaiena baino zientifikoagoa da»

Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko ikertzailearen arabera, berdintasunezko gizarte bat lortzea gizonen ardura ere bada, egun indarrean dauden rolerak haiei ere "kalte handia" egiten baitie

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

Elena Aldasoro Eusko Jaurlaritzako Osasun saileko ikertzaileak uste du gizonezkoek emakumezkoek baino medikuntza zientifikoagoa eskuratzeko aukera dutela. Honen arabera, farmakoak probatzeko egiten diren entseguetan gizonezkoak erabiltzeko joera dago, eta animalietan egiten denean batez ere arak erabiltzen dira. Horrela, emakumeei aplikatzen zaien medikuntzak zenbaitetan beharko lukeen oinarri zientifikorik ez daukala uste du. Ikertzaile altsasuarrak genero banaketak osasunaren alorrean duen eragina aztertzen ibili da azken urteotan, eta ikerketa horretatik ateratako ondorioak iragan ostiralean azaldu zituen Iortia kultur etxean.

Alor horretan lehen ikerketa duela 15 urte burutu zuen, genero ezberdintasunak miokardioko bihotzekoan zuen eragina aztertu zuenean. Bertatik ondorio argigarri bat atera zuen: miokardioko bihotzekoen kasuan emakumezkoak ez dira behar bezala artatuak izan. Orokorrean, mota horretako

ko bihotzeko bat jasatean emakumezkoek gizonezkoek baino sintoma leunagoak dituzte, eta horrek, Aldasororen arabera, medikuak "arinkeriaz" jokatzera eramaten dituzenbaitetan. Horrela, emakumezkoek aipatutako gaitzaren sintomak aurkezten dituztenean, medikuek, kasu askotan, ansiolitikoak errezetatzen dizkiete, gizonezkoei zuzenean elektrokardiograma bat egitea gomendatzen dieten bitartean.

Hortaz landa, ikertzaile eta mediku altsasuarrak koloneko minbizia ere genero ikuspuntutik aztertu du. Horrela, minbizi hau gizonezkoetan emakumezkoetan baino usuago gertatzen den arren, lehenengoak kontsultetara gutxiago joaten direla ikusi du. Aldasororen arabera, joera hori gizonezkoek duten ikuspegi gogorrak sorturikoa da, eta berau gizarte osoarendako da kaltegarria: "Mila indibidualean gizonezkoak ateratzen dira galtzen, baina maila kolektiboan denok galtzen dugu. Izan ere, horrelako gaitzen aurkako programak abiatu ahal izateko eskaria handia izatea komeni da. Programa hauek kostu ekonomiko handia dute, eta modu masibo batean erabili ezean ez dira abian jartzen".



Aldasorok medikuntza dauden genero bereizketek hitzaldia eman zuen.

Aipatutako bi ikerketek gain, Aldasorok beste zenbait txosten ere garatu ditu; besteak beste, diabetes eta osasun mentalaren inguruan. Azken horri dagokionean, Eusko Jaurlaritzako ikertzailearen arabera osasun mentalaren

inguruan egiten diren testetan beti emakumezkoak ateratzen dira emaitza txarragoekin. Edonola ere, test horiek funts zientifiko oso urria dutela azpimarratu nahi izan du, test hauek galdera zuzenen bidez osatutako inkesta arrun-

tak direla esanez. "Benetan emakumezkoek depresio gehiago daukagu, edota depresioa daukagula onartzeak gizonezkoei baino lotsa gutxiago ematen digu? Agian gizon eta emakumeek ondoezak adierazteko modu ezberdinak ditugu, eta nolabait emakumezkoa estigmatizatu egiten da, esanez guk depresio gehiago izaten ditugula", argitu du Aldasorok.

Gizartea kontzientziatzearen garrantzia

Egungo egoera irauli ahal izateko eginiko ikerketa eta ondorioak praktikan jartzea funtsezkoa dela uste du Aldasorok, eta haren arabera, hori lortu ahal izateko lehenik eta behin, klase zientifikoa, medikuen klasea eta, oro har, gizarte osoa kontzientziatu behar da. Hortaz landa, emakumea inguruko gehiegi ez arduratu eta bere buruaz ere arduratzea garrantzitsutzat jotzen du.

Ikertzaile altsasuarraren aburuz, prozesu hau pausoz pauso egin beharreko zerbait da. Horren guztia helburua zein den garbidak: berdintasunezko gizarte bat lortzea. Eta hau, haren esanetan, gizonezkoen ardura ere bada, gizartean finkatuta dauden rolerak haiei ere kalte egiten baitie.

SAKANA

Ikurrinek ez dute udaletan tokirik izango

Nafarroako Parlamentuak atzera bota du Guztion Nafarroa, guztion ikurrak herri plataformak Nafarroako ikur guztiak aintzat hartzeko proposatutako herri ekinbidea

2003ko Nafarroako Sinboloen Legeak indarrean jarraituko du eta ikurrinek ez dute udaletan tokirik izango. Izan ere, Nafarroako Parlamentuak asteartean atzera bota zuen Nafarroako ikur guztiak aintzat hartzeko proposatutako herri ekinbidea. Lege egitasmoak 23 boto jaso zituen kontra (UPN, PSN eta PP) eta 17 alde (Bildu, Aralar-Nabai, Ezkerria eta Geroa Bai).

Lege egitasmoa Nafarroako hainbat arloko pertsona esanguratsuek bulkatu zuten eta urte bateko epean 9.100 sinadura jaso zituen. Parlamentuko astearteko bilkuran Eneko Compains EHUKo Zuzenbide fakultateko ikertzaileak defendatu zuen ekinbide legegilea. Nafarroako aniztasuna errespetatuko duen lege berri bat eskatu zuen eta lege horrek "herriarrek sinboloei buruz duten iritzia" jaso behar duela azpimarratu zuen. +www.guaixe.eus

SAKANA

Bocalan Biak Bat fundazioak sustatutako legea onartuta



Josune Azpiroz eta Josu Mendez, fundazioko kideak. ARTXIBOA

Asistentzia Txakurren Legeak ezgaitasunen bat duten pertsonen laguntza txakurrekin edonon ibili eta egoteko aukera ematen du

Nafarroako Parlamentuak asteartean onartu zuen legea, Altsasun egoitza duen Bocalan Biak Bat fundazioak sustatu du. Laguntza txakurrekin lan egiten du erakundeak eta bere jarduna aurrera eramateko lege babesik ez zenez, legea sustatzea erabaki zuen. Fundazioko arduradun Josu Mendezek pozik hartu zuen albistea. "Gurpildun aulkietan dauden pertsonen, entzumen ezgaitasuna dutenen, autisten... ezgaitasunen bat duten pertsona guztiek euren laguntza txakurrekin edonora sartzeko aukera izanen dute".

Mendezek azaldu digunez, orain arte itsuen laguntza txakurrekin ibiltzea eta egotea arautzen zuen soilik legeak. Laguntza txakurrekin lanean lau urte darama Bocalan Biak Bat fundazioak. "Gure erabiltzaileek laguntza txa-

kurrek tokietara sartzeko inolako lege babesik ez zutela ikusi genuen. Inori ez zaigu buruan sartzeko pertsona bati esatea: zure gurpildun aulkia kanpoan utzi behar duzu. Laguntza txakurrekin hori gertatzen zen".

Fundazioan berdin jarraituko dute lanean. "Baina txakur bat entrenatzen ari garenean ez dugu Arabara edo Gipuzkoara joan beharko. Han lege babesia aurretik zegoen. Orain txakurrak trebatzen, entrenatzen, Iruñean egin ahalko dugu lan". Legearekin laguntza txakurrak dituzten pertsonen lasaitasunean irabaziko dutela ziurtatu du Mendezek. Fundazioak, bitartean, terapia eta prestakuntza eskaintza egiten segitzen du, "garai hauetan finantzaziorik ez badago ere. Gustura ari gara. Gero eta jende gehiago urreratzen da guregana". Gutxi barru Altsasuko herriari sorpresa bat emanen diotela iragarri du Bocalan Biak Bat-ekoak.



Raf Atxuri

astekoa

Altsasu Euskadiko (sic) hiriburua

Iragan urteko Eguberri giroan gogoak epel eta hesteak liseriketa lan gaitzetan zeudela Por Fin Viernes saioko momentikobatek asaldatu eta argitu zigun ostiraleko gaua. Mafaldak, baina ez Quinorenak Mariarenak baizik, euskal politikagintzaren korapilo gordiano bat askatu zuen deblauki, xalo eta natural. Mun-

duko hiriburuak zerrendatzen arizen bideo batean urte eta erdiko alaba: "Italia-Roma, España-Madrid, Euskadi... Altsasu." Horra!

Mafaldari jakin bide hura altsasuar amonarengandik zetorkion eta kameraren aurrean harro azaltzen zen lau urte geroagoneskatxa euskal historia irauliko

duen profezia pantailan ikusi ondoren.

Mota guztietako tripa eta buru hausteak somatu ahal izan genituen Pirinio-Kantaurialdeko bizkarretan. Iribas buru eta Jose Mari Esparza buztan, Nabarraldeko jendeak barne, eta Sabin Etxeko intelligentsia oro astindurik euskal harri filosofalaren aur-

kuntza zabaldu zen bolo-bolo.

Ez Iruñea, ez Gasteiz, ez Donostia, ezta Garaziko herria, hain gutxi Bilbo... Euskal hiriburutza goesto... Altsasu. Ez alferrik Garzia Ximenezen goratzea Burunda erdiko harizti sainduan kokatu zuen kondairak. Bide batez urdiaindarrek ermitarenean bezala beren puska hartu beharko dute

hiriburutasun kontu honetan.

Gernikako arbola ihartu eta zimeldu ondotik betor kimuak jori eta zainak sendo eta sakon Altsasuko intxaurrendoa, euskal errepublika ponpoxaren ikuur handiosa.

Eta euskal ereserki ofiziala? Horixe: Altsasuko zortzikoa. Baietz Mafalda!

barrutik kanpora

«Errausketarik gabeko» Nafarroako Gobernuaren Hondakin Plan Berria

Nafarroako Gobernuak, orain dela gutxi agertu zen jendaurrean, Nafarroan errausketa baztertzeko zuela iragarri. 3MB plataformatik adierazi genuen UPNren beste propaganda kanpaina bat besterik ez zela, bere ingurukoak lasaitu eta FCCrekin batera hondakinak kudeatzeko prestatutako planari jarraipena emateko.

Eta horrelaxe izan da. Ustez errausketa-energia balioztatze gabeko HKNPI (Hondakinak

Kudeatzeko Nafarroako Plan Integrala) berriaren lehen zirriborroa ezagutu dugunean, Nafarroako Gobernuak eskaintzen duen konponbidea, hondakinak, zementu-fabriketan errausketa "erregai" bihurtzea da. Eta hori noski, Olaztiko FCC-renean egingo da, horretarako baitauka 2012az geroztik hitzarmena sinatua, besteak beste hondakinak balioztatzea sustatu eta areagotzeko eta horretara bideratutako

hondakin kudeaketa eredu ezar-tzeko.

Ez da ahaztu behar, hitzarmen hori sinatu ondoren, Nafarroako Gobernuak UPnS (Udalaz gaindiko Plan Sektorial) bat indarrez ezarri zuela, horrela, bere udal barrutian hondakinetatik eratorritako "erregaiak" erabiltzea debekatzen zuen Olaztiko Udalaren araudia saihestuz.

Ikusi dugu nola Tuteran denek bat egin duten pneumatikoak

(Olaztin erreko duten hondakinetako bat) errausketa zituen energia balioztatze planta bertan behera uzteko. Tafalla aldean energia balioztatze planta bat eraikitzea ere atzera bota dute, hemen Sakanan jardura bera inposatu nahi duten alderdi horiek guztiak han aho-batez hala eskatu dutelako. Donapeako UPnS-a udal autonomiaren kontrako eraso nabarmena zelako atzera botatzea nola lortu den ere ikusi dugu.

Gure osasunaren aldeko borroka eredugarria izan da Sakanan. Baina hemen borrokan jarraitzea beste aukerarik ez zaigu geratzen, eta denok dakigu zergatik.

<http://olaztinerrausketarizek.blogspot.com.es/>


3Mugak Batera

barrutik kanpora

Charlie Hebdo: hausnarketa zaila

Charlie Hebdoen kontrako bidegabekeriak beharrezkoa egiten du hausnarketa lasaia, biharko egunean gure seme-alaben ikasketxeetara, gure erakunde eta kontzientzietaraino irits daitekeen suaren galda indartu nahi ez bada.

Adierazpen askatasuna onpreziatu bat da, eta mugatua. Muga gehienak neurririk gabeko askatasuna defendatzen dutenek ezarria da, batik bat "beraien" askatasunaz ari bagara.

Adibidez, Frantzia debeka-

tuta dago emakume islamikoek hiyab-a jartzea; Ingalaterran manifestari batek adierazten badu David Cameron-ek eskuak odolez zikinduak dituela, preso joan daiteke...

Mugak beraz, ezberdinak dira interes taldeen arabera.

Gauregun ez du inork zalantzan jartzen askatasunaren balioa. Baina berdintasun eta senidetasun baloreekiko zer? Balio hauek izan ziren II. Gerrate Mundialaren ondotik, ongizate sozialeko estatua sortu zutenak, Europa

demokratiko hartan. Baina azken urteotan sorturiko krisi latzak ekarritako desbabes soziala eta gazteen arteko langabeziaren maila altuak ez ote dira ari pizten hortaz gain, bazterkeria etniko eta erlijiosoa sufritzen ari direnen erradikalizazioa?

Fanatismoen arteko talkaren aurreangaude. Historiak adierazi du talka horien gaintik interes ekonomiko eta politikoak dardela. European gurutzada, Inkisizioa, kolonizaturiko herrien ebanjelizazioa; budismoan Sri

Lankako gutxiengo Tamil-aren kontrako bidegabekeria; Israelen erlijioaren izenean daraman garbiketa etnikoa Palestinan...

C. Hebdongo heriotzen kontra europarrek erabateko nazka bai, eta zergatik ez beste heriotzekiko? Egun berean 37 hildako ziren Yemenen bomba atentatu batean; Mexikon 2000z geroztik 200 kazetari izan dira erahilak adierazpen askatasuna defendatzeagatik, eta abar.

Ezberdintasun horrek ezin du oinarrituta egon bizitza beraren

balore ezberdintasunean. Edo, europar "txuri" eta kristauaren bizitzak bestelako kolore, sinismen, erlijiodun... gainontzeko europarrenak baino gehiago balio al du?

Edota lider politikoek eta komunikabide nagusiek "beste horiei" sorturiko sufrimendua arintzen ari ote dira? Hausnarketa beharrezkoa da.

Immigrazio Zerbitzua
Guaixe


ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.net
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitx Amadoz Lazkano
ZUZENTZAILEA: Felix Alzelai
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.net
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:
Mank
 s a k a n a

BAZKIDEAK
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikako Salburuordetza

SAKANA

D eredua, eskertuko dizute

Nafarroako makina bat toki erakundeak, Sakanako Mankomunitatearen barne, D ereduan matrikulatzearen aldeko kanpaina abiarazi du

Kalitatzeko, konfiantzazkoa eta hurbilekoa. Horixe da euskarazko irakaskuntza Dereduaren aldeko kanpaina sustatu duten Nafarroako

erako toki erakundeendako. D ereduak "30 urte baino gehiagoko eskarmentua" duela nabarmendu dute euskara zerbitzuetatik, gaineratuz Nafarroako berezko hizkuntzak eta atzerriko ikasteko aukera ematen duela.

Euskara "arlotan pertsonalean eta

profesionalean aberastasun" erakpena dela gaineratu dute. Hain zuzen ere, toki erakundeek aurtengo kanpainaren protagonista familia bat, Sada-Murugarren, bilakatu dute. Gurasoek garai batean euskararen aldeko hautua egin izana eskertzen duten seme-alabak age-

ri da kanpainako euskarrietan, eta hortik kanpainaren leloa: eskertuko dizute.

Kartel eta esku-orriek aparte, hiru urteko seme-alabak dituzten gurasoei Dereduan matrikulatze-ko gonbitea eginez gutuna bidaliko diete toki erakundeek. Aldi



berean, mezua bideo bidez ere zabaldu dute.

>> Izurdiaga

Trenbide pasagunea kentzeko proiektua onartuta

Sustapen Departamentuarendako lehentasunezko proiektua da eta aurten hasiko dira lanak

Luis Zarraluqui Ortigosa sustapeneko kontseilariak sinatutako Foru Agindua astelehenean argitaratu zuen Nafarroako Aldizkari Ofizialak. Jendaurreko epean aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoren, ukitutako ondasun eta eskubideak publikatzearekin batera, Izurdiagako trenbide pasagunezko egitasmoa onartu da.

Zaragoza eta Altsasu arteko tren linearen 202/497 kilometro puntuan dago Izurdiagako trenbide-pasagunea. Hura kentzeko proiektuak 3.096.046,96 euroko aurrekontua (BEZa kanpo) du. Hala, autobia azpiko zubia pasa ondoren, Izurdiagako Geltoki auzora jaitsi beharrene gidariak ezkerrean egin beharko dute autopistari paralelo joanen den bideetik Izurdiagako San Juan auzora iristeko. Kontzeju etxearen parean bat egingen dute errepide berriak eta egungoak.

Pozik, baina

Izurdiagako Kontzeju buru Jose Luis Garcia Urbistondok esan digunez, "orokorrean, proiektuarekin pozik" dago. Hala ere, kezu da aurkeztu duten alegazio bati Sustapen Departamentuak jaramonik egin ez diolako: "Geltoki auzoko sarreran, autobia azpiko zubi ondoan borobil bat egin behar da. Hor malda aldaketa handia dago eta ikuspen arazoak daude. 100 metrora arte ez da borobila ikusiko. Gidarien ikuspena eta segurtasuna handitzeko errepidea jaiste eskatu genuen. Alferrik". Urbistondok dioenez, errepidearen mailak jaisteak "inguruko etxebizitzetako sarrera-irteerak ere erraztuko lituzke".

San Juan auzora elizaldetik eta Erroztik sarbidea hobetu dietela aipatu digu kontzeju-buruak. Lanak noiz hasiko diren galdetuta ez dakitela argitu digu: "mugitzea espero dugu. Obra publikorik ez dago, baina hauteskunde urtea izanik, zeinek daki". Guai-ek gai az galdetuta kontseilariaren gabinet buru Tatiana Herce Echaurrek jakinarazi digu departamentuarendako lehentasunezko proiektua dela eta lanak aurten hasiko direla.

Eragozpenak

Izurdiagarrak behin baino gehiagotan kexatu dira trenbide pasaguneaz. Maiz gertatzen da trena pasatu behar delako trenbide



Alegazioen erantzunen berri eta egitasmoaz batzarra egin zuten Izurdiagan aurreko ostiralean.

70 urte

Zazpi hamarkada pasa dira Sakanan aurrenekoz trenbide pasagune bat kenduz utzela. 1945eko urte akaberarako Etxarango trenbide pasagunearen ordez trenbide gainerako gaur egungo zubia egin zegoen. Lanek 275.000 pezetako aurrekontua izan zuten eta Lazaro Arraras kontratistak egin zituen lanak. Estatuak aurrekontuaren erdia estali zuen.

Nafarroako Diputazioak herrialdeko trenbide pasaguneak egiteko lehen plana Errepublikara garaitu da, 1935koa. Lau urte geroago gaia berriro eskutan hartu eta Castejon eta Altsasu trenbideko pasaguneak kentzean jarri zuten lehentasuna. 1945eko akaberarako linea horretan Tafalla, Carrascal, Noain eta Etxarango pasaguneak kenduak zeuden. 1939ko planaren arabera lehen mailako errepide-

an zeuden Hiriberri, Irañeta, Uhartea Arakil eta Altsasukoak kentzeko asmoa zegoen. Bigarren mailako errepideetan, Irurtzun, Lizarragabengoa eta Etxarri Aranazko trenbide pasaguneak. Nafarroako Gobernuak eta Sustapen Ministerioak trenbide pasaguneak kentzeko hitzarmena sinatu zuten 1998an. Haren arabera Izurdiagakoa 2007rako kendu behar zen.

pasaguneko hesiak jaitsi egiten direla eta luze egoten direla behean, trenik pasa gabe. Urbistondok azaldu digunez, "sarri pasatzen da. Ordu bat ere egon daitezke

barrerak behean. 112ra hots egiten dugu eta handik trenbide pasagunea kontrolatzen duten Miranda de Ebrora. Konpondu bitartean Foruzainak etorri eta

haiek arduratzen dira hesiak behean direla, trafikoa bideratzeaz. Horregatik, batzuk dagoneko saihebidetza izanen deneko bideak erabiltzen ditugu".

Aktak

Proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideak okupatu aurreko aktak egiteko otsailaren 16an, 17an eta 18an jarri dute hitzordua, Arakilgo udaletxean. Titularitasuna frogatzen duten agiriak eraman beharko dira.

asi arreta eta orientazio psikologikorako zentrua

Arantxa Sueskun Igoa
PSIKOLOGOA - PSIKOTERAPEUTA

Zer da eromena?
Behin eta berri berdin
egitea emaitza desberdinak
lortzeko itzaronez.

Albert Einstein

Aldatzera animatzen zara?

Urbasa kalea 15, behea
31800 - Altsasu (Nafarroa)
669 367 422

TxiKITEKO
2x1
haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08
Ferialleku 2 - ALTSASU

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Asteleheneetik ostiralera
Eguneko menua
8,25€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 - Altsasu

MAPFRE Altsasu

ZUK AUKERATZEN DUZU
Zuri egokitutako
auto poliza berria

Mapfrenen bermearekin
Etorri eta
aurrekontua eskatu!

ti Seguro de Autos
ELIGES

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

948 563 354 · jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 · ALTSASU

SAKANA

Sakandar talde batek Nafarroako Gobernuari Sakanarekin inplika dadila eskatu dio



Krisi mahaiak herrietara zabaldu zuen bere jarduna. ARTXIBOA

Sakanako Plan Estrategikoa eta beste onartuz ibarrak bere "etxeko lanak" egin dituela uste dute. Nafarroako Gobernuari eskatu diote "konpromisoa gauzatu eta lankidetzaren formula eraginkorra, hitzarmen singularra edo Sakanako plan berezitu bat" egiteko

Taldekideek Nafarroako Gobernuaren babes eta inplikazio beharrez gizariek zeresana duela uste dute eta etorkizunean sinadura bilketa bat abiatzea dute buruan

Nafarroako Gobernuaren ordua uste dute ibarreko 25 pertsonen. Sakandarrek azken hiru urteetan sozio-ekonomi garapenaren oinarriak jartzeko "esfortzu izugarria" egin dutela nabarmendu dute 25ek. "Ez da nahikoa, ordea, urrunago iristeko, sakonkiago

eragiteko eta abiadura azkartzeko baliabideak eta Nafarroako Gobernuaren inplikazioa ezinbestekoa zaizkigulako". 2011n Larrialdi Mahaiak aipatutako lankidetzaren hitzarmen egonkorra edo ibarrerako plan berezitu eskatu dituzte.

Sakanako Plan Estrategikoa garatzeko heldu den sei urteetan 20 eta 30 milioi euro arteko ekarpena egitea eskatu diote Nafarroako Gobernuari, "lan eraginkor eta arrakastatsua egiteko" (Tutera-ko Nekazaritza Elikagaien Hiriak 120 milioitako aurrekontua zuen, eta Pirinioetako Garapen 2007-2010 Planak 336 milioi). Nabarmendu dutenez, "egoera osolarria eta kronikoa dugun heinean, Nafarroa-

ko Gobernuaren babes eta laguntza behar dugu". Nafarroako Parlamentuak gobernuari ibarrarekiko inplikazioa eskatu ziola ere azpimarratu dute.

Gobernuaren txanda

25ek nabarmendu dute Sakanako toki erakundeek, haienak ez diren ekonomia garapen sustapenean eskuduntzarik ez izan arren, arlo horretan ekarpena egin dutela. "165.000 euro bideratu dituzte garapen estrategiarako, eta hiruzpatalau garapen dinamizatzaileen kontratazioa sostengatu dute". Baina eskuduntzak eta baliabideak Nafarroako Gobernuak dituela azpimarratu dute.

Datuetan oinarrituta, inguruko garapen agentzien baliabide gehienak udaletxetatik beharrean autonomia edo foru mailako erakundeetatik datozela azaldu dute: Tafalla aldeko Consorcio de Desarrollo de la Zona Media delakoa 1.203.302 euroko aurrekontua du (11 langile eta udalen ekarpena 115.381); Urola Garaiko Garapen Agentziak 857.430 euroko aurrekontua (8 langile eta udalen ekarpena 208.000); Goierriko Goieki garapen agentziaren aurrekontua 1.200.000 euro (12 langile eta udalen ekarpena 400.000).

+www.guaixe.eus

URDIAIN

EGA azterketa prestatzeko ikastaroa

Izen ematea otsailaren 2tik 6ra arte egin daiteke Altsasuko Itsasi euskaltegian

Euskarazko Gaitasun Agiria edo C1 titulua eskuratu nahi duen edozeinek prestatzeko ikastaroan izena emateko aukera du. Otsailaren 14tik garagarriera bitarteko larunbatetan, 10:00etatik 13:00etara, izanen dira klaseak. Urdiaingo guraso talde batek antolatuko du ikastaroa eta AEK-ko irakasleak izanen dira hura emateaz arduratuko direnak. Sakanako ikasleek eta %80ko asistentzia dutenek Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan dirulaguntza eskatzeko aukera izanen dute.

SAKANA

Etzi azoka sozialarekin hitzordua

Igandean, 11:30etik 14:30era, Etxarri Aranazko estalopean

Hileko aurreneko igandeetako hitzorduari hutsik egin gabe, Zorri Azoka eginen da etzi Etxarri Aranatzen. Sakana guztiko artisauak elkartuko ditu azokak. Baita barazki ekologiko eta bertako produktuen ekoizleak eta artea ere. Hala, otsaileko azokako gonbidatua zilarrezko bitxigintza lantzen duen Y-Poranga tailerra izanen da. Zorri Azokaren osagarri dira musika, erakundeen informazio eta zabaltze gunea ere. Gainera, truke txoko bat izaten da beti azokan. Interesadutenek euren arropa, liburuak, diskoak edo bestelakoak eraman ditzakete Zorri Azokan trukatzeko. Gainera, Zorri Azokaren produktuen zozketa ere eginen da etzi.

HARREMANETARAKO

Azokan parte hartu nahi dutenek zorriazokainfo@gmail.com helbidera idatzi dezakete.

»

Nekazal turismo gida

Nafarroako Elkarte Turistikoen Federazioak berriki aurtengo Nafarroako Nekazal Turismo Gida argitaratu du. Gidaliburuak herrialdeko nekazal turismo eskaintza nagusia barneratzen du era sakon eta irudietan. Gidak Nafarroako eskaintzaren berri eskualdeka eta alojamendu motaren arabera ematen du. Nafarroako Elkarte Turistikoen Federazioko kide hamar elkarte dira. Horietako bat da Aralar-Urba izenekoa, Leitzaldea, Lekunberri, Larraun eta Sakana hartzen dituena. Elkarte horretan ibarreko lau alojamendu daude: Martxoenea (Arruazu), Etxeberria eta Etxeaundia (Lakuntza) eta Urbasa-bide (Olatzagutia).

ARRUAZU

Dolu egunak

Astelehenean jendetzak despeditu zuen larunbatean ehiza istripuan hildako gaztea

Basurdetara Xavierre Latrera (Hueska) joan zen gazte arbazuarra, AGA, larunbat eguerdian hil zen. Beste 30 bat pertsonarekin batera ari zenehizan (Leitzakoak, Andoainoak, Buñuelgoak eta Lakuntzakoak). Antza, bere anaia txikiak beste postu batetik egindako tiroa nonbaiten errebotte egin eta 26 urteko gaztea larri zauritu zuen, berehala hil zen. Babeseko txalekoak jantziak zituzten ehiztari guztiek. Leku trakets batean gertatu zen ezberharra. Osasun zerbitzuek ezin izan zuten berehalakoan hara gerturatu. Guardia Civilaren mendi taldeak eta helikoptero baten laguntza behar izan zuten gorpua ateratzeko. Guardia Civilak ikertu du ezberharra.

12 URTE

Dozena bat urte pasa dira heriotza ekarri zuen azken ehiza istripuak. 2003ko lastailaren 19an gertatu zen, Gorritiko usategi batean tiroa hartuta hil zen 34 urteko altsasuarra.

» ALTSASU

Lapurrak emakumea zauritu du

Frontoiko zeharbideko eraikin batean sartu zen gizonezko lapurra atzo eguerdian. 60 urteko emakume baten etxean sartu zen. Labanaz mehatxu eginez eta indarkeria erabiliz dirua eta bitxiak eskuratu zituen eta hanka egin zuen. Lapurrak etxean zauritu utzi zuen emakumea. Lotzeneren saiatu omen zen. Altsasun zeresan handia eman duen lapurreta Foruzaingo ari da ikertzen.

SAKANA

NAN Altsasun egiteko hitzorduak bertan behera

Tramiteak egiteko beharrezkoak diren aplikazioetan arazo informatikoak dituztelako hartu du erabakia Polizia Nazionalak

Polizia Nazionalak NAN (Nortasun Agiri Nazionala) herrietan tramitatzeko 157 hitzordu bertan behera utzi ditu Leitzan, Altsasun, Tafallan, San Adrianen eta Elizondon, prozesua egiteko beharrezkoak diren gailu eta aplikazioetan arazo informatikoak dituztelako. Polizia Nazionala Iruñeko bulegotik kaltetuekin harremanetan jartzen ari da, gertatutakoaren berri emateko eta NANA berehala berritzea behar dutenen kasuan, tramitea Iruñean egitea eskaintzeko. Kalteturen batek kontsultaren bat egin nahi badu, ondoko telefonoetara hots egin dezake: 948 292 935, 948 292 936, 948 292 937 eta 948 292 938. Oraindik ez dakite noiz jarriko den martxan, atzera ere, herrietan NAN tramitatzeko zerbitzua.

»

Finantza bulegoak gutxiago

Finantza krisiaren ondorioz finantza sektorean aldaketa ugari izan dira. Nabarmenetako bat bankuen artean izan den kontzentrazio prozesua. Duela zazpi urte 60 bat ziren merkatuan lehiazten ari ziren banku eta kutxak; gaur egun, berriz, 20 bat dira. Horrek bulegoen itxierak ekarri ditu. Sakanan ere izan dira halakoak, adibidez, CaixaBankek CAN bereganatu zuenean, Altsasuko bulegoa itxi zuten (2012ko udazkena). Abenduaren 11n itxi zituen ateak Etxarri Aranazko Banco Popularraren bulegoak, 1975eko irailetik zabalik zegoena.

Gaur egun finantza erakundeek 23 bulego dituzte Sakanan. Fusio prozesuen ondoren zazpi bulego besterik ez dira kutxenak, 4 Laboral Kutxarenak eta 3 Rural



Altsasun Caixak zuen bulegoa hustu zutenekoa. ARTXIBOA

Kutxarenak. Gainontzeko bulegoak banku handienak dira. Eta guztien buru CaixaBank da. CANen negozioa bereganatu ondoren bulego bakarria izatetik

zortzi izatera pasa da. Bina bulego dituzte ibarrean Sabadell-Guipuzcoanok, Santanderrek eta Popularrek. Bana, berriz, BBVak eta Kutxabank-ek.

Finantza bulegoak

Herria	Finantza erakunde bulegoak
Irurtzun	Banco Popular, Banco Sabadell-Guipuzcoano, CaixaBank, Laboral Kutxa, Rural Kutxa.
Uhartea Arakil	CaixaBank, Rural Kutxa.
Lakuntza	CaixaBank, Laboral Kutxa.
Arbizu	CaixaBank.
Etxarri Aranatz	CaixaBank, Laboral Kutxa.
Urdiain	CaixaBank.
Altsasu	BBVA, Banco Popular, Banco Santander, Banco Sabadell-Guipuzcoano, CaixaBank, Kutxabank, Laboral Kutxa, Rural Kutxa.
Olatzagutia	Banco Santander, CaixaBank.

50 urte

Ilbeltzean bost hamarkada bete ditu Laboral Kutxak Altsasun duen bulegoa. Kutxa horrek Nafarroan zabaldu zuen aurreneko bulegoa da.

SAKANA

Energia berriztagarri horren azterketa Sakanako Garapen Agentzia egiten ari den ikerketa orokorrako baten parte da

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Energia Berriztagarrieta-ko ikasle den Amaia Araiz Sakanan energia hidraulikoak duen potentzialtasuna gradu amaierako lan gisa ikertzen ari da. Txostena iraila ingururako izango du prest (otsailerako egitea gustatuko litzaiokkeen arren, ordurako oraindik zenbait aspektu izanen ditu definitzeko), baina jadanik ondorio nagusi batera iritsi da: Sakanak energia hidraulikoan duen gaitasunarekin posible izango litzateke aprobetxamendu energetikoa burutzeko. Beste era batera esanda, ibarrak energia mota horretan duen potentzialarekin aprobetxamendu optimo bat egin liteke, etxeetara eta industrietara eramateko moduko aprobetxamendu bat, hain zuzen.

Potentzial hori neurtu ahalizateko, Araizek faktore ugari hartu behar izan ditu kontuan: prezipitazio kopurua, ibaien emaria, lurzoru eta begetazio mota... Balore horiekin guztiekin balizko zentral hidrauliko batean erabili beharko litzatekeen turbina mota zehazten da, potentzia bakoitza behar bezala aprobetxatu ahalizateko. Zentzu horretan, Sakanak

Sakanak energia hidraulikoan duen potentziala aztergai

ezaugarri bereziak dituela uste du Araizek: "Sakanaprezipitazio ugari-ko ibar bat da, eta ibaien emariak aukera ematen dizu aprobetxamendua egiteko. Ur asko jasotzen duen arro batean dago, eta horrek abantaila handiak ematen dizkizu".

Bestalde, ibaietan erabilpenik gabe dauden zentral hidraulikoen kopuruak bereziki harritu du Araiz. Haren esanetan, potentzial hidrauliko handia ateratzea ahalbidetuko luketen zentral ugari daude erabilpenik gabe. "Errotaineko zentralak, esaterako, instalazio oso egokiak ditu; nahiko zaharrak, baina oso ongi kontserbatuak", gehitu du Araizek.

Energia berriztagarriak, erregai fosilen alternatiba

Aipatutako azterketa Sakanako Garapen Agentzia egiten ari den ikerketa orokorrako baten barruan dago. Berau Sakanako Plan Estrategikoa definitzerakoan sortu zen, ikusten baitzen energia berriztagarrien alorrean beharrezkoa zela azterketa sakon bat



Aintzane Iribarren garapen agentea eta Amaia Araiz ikerlaria.

egitea. Gauzak horrela, duela bi urte biomasaren inguruko azterketa bat egin zen, zeinaren ondorioa den egun udalak aurrera era-

maten ari diren ustiapen plangintza. Orain, Araizez landa, EHUko beste ikasle bat dabil aipatu ikerketa orokorrean murgilduta, kasu

horretan, energia eolikoa jorratzen. Hortaz, gaur egun ikerketa energia hidrauliko eta eolikoan dago zentratutik.

Garapen Agentziako ardura-duna den Aintzane Iriberriren esanetan, Sakanak energia berriztagarri ezberdinetan duen potentziala jakiteak garrantzi handia du. Izan ere, Iriberriren arabera, erregai fosilak geroz eta baztertuago daude, eta egoera horretan dagoen alternatiba bakarra energia berriztagarriena da. Dena den, Garapen Agentziako arduradunak oraindik epe luzeko planik ez dutela egin adierazi du: "Emaitzen arabera, gauza bat edo bestea egingen dugu. Lehenik eta behin, Sakanako eskualde bakoitzak duen potentziala zein den jakin behar dugu. Gure asmoa proiektu ezberdinak sortzea izanen litzateke. Azkenean, energia berriztagarriak eguneroko gauza direla ikusten dugu, eta argi daukagu eredu energetikoa aldatu beharra dagoela. Orduan, hori aurrera eramateko lanean ari gara".

MOTZEAN

Euskararen ordenantza, "aurrerapen argia"

Horixe azpimarratu du Administrazioan Euskaraz Taldeak (AET): "urrats inportante da euskara pixkanaka normalizatzeko, eta euskaldunok eskertzen dugu hori". "Aurrerapen garrantzitsu" horren ezaugarriak horrela laburtzen dituzte AET-tik: elebitasun normalizatzailea (euskara lehenesten duena), langileen hizkuntza eskakizunak arautzea, hirugarrenen bidez ematen diren zerbitzuetan hizkuntza eskubideak onartzea eta laneko hizkuntzetan euskara ere kontuan hartzea.

Langile guztiak gai izanda itezten euskaraz lan egin eta zerbitzua emateko ordenantzak hizkuntza plangintza bati ere aipamen egiten dio-

la adierazi du AETk. "Hala ere, ahaztu zaio euskara merezimendu moduan hartzea hizkuntza eskakizunetik ez duten lanpostuetan".

Errotulu elebidunak kiroldegan

Horixe jartzeko epaia eman du Nafarroako Administrazioarekiko auzi Epaitegiak. PPko zinegotzi Oscar Alvarezek euskara hutsezko errotulazioa baztertu eta elebidun jartzeko udaletxean lautan eskera egin ondoren, gaia epaitegira eraman zuen. Zinegotziak jakinarazi duenez, epaitegiak arrazoia emandio. Alvarezek Bilduri "gutxiengo batek dakien" euskara "inposatzea" leporatu dio. "Kultur identitate propioaren zati gisa, gu ez gaudela euskararen presentziaren kontra, beti ere, inposatzen ez bada eta gaztelania gutxiesten ez badu".



Sakana Fiturren

Herenegun zabaldu zituen atea Madrigo nazioarteko turismo azokak, Fiturrek. Nafarroako Gobernuak herrialdearen eskaintzaren berri emanez standa prestatu du. Han, besteak beste, Sakanazeharkatzen duten motorzaleendako ibilbideen berri ematen da. Atzo ospatu zen Nafarroaren Eguna.

Plazaola Turismo Patzuergoa ere Fiturren dago, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak natur bideen inguruan prestatutako standean. Patzuergo kudeatzaile Maitena Ezkutarik arratsaldean Plazaola, itsasoaren eta mendiaren artean izenburuko aurkezpena egin zuen atzo. Plazaola ibilbidean izan



Nafarroako Gobernuak azokarako prestatu duen standa jendez beteta.

diren aurrerapenen berri ematen zuten, besteak beste. Ondoren

eskualdeko artisau jakiak dastatzeko aukera izan zen.

**PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!**

Berria erosi taldea

Zatoz gure ardotegia ezagutzera!

HIJOS DE GOIKOETXEA EDARI BANATZAILA

Geltoki auzoa 11 · Altsasu
948 467 317 · 696 979 279 · hijosdegoikoetxea@yahoo.es

PORTUKO okindegia
Ogiaren artisauak

Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763

» Arbizu

Fran Baldaren askatasuna eskatzeko manifestazioa Arbizun

Igandean, 18:00etan, Arbizuko plazan, "Konponbideari erasorik ez. Fran etxera!" lelopean

Ilbeltzaren 12an atxilotu zuten Fran Balda arbizuarra, beste 15 euskal herritarrekin batera, horietatik 12 abokatuak, "Mate" deitutako operazioan. Espainiako Auzitegi Nazionaleko Eloy Velasco epaileak hilaren 14an Fran Balda espetxeratzea agindu zuen "Herri-irajardutea debekatzen dion kautelazko neurria haustea, erakunde terroristako kide izatea, hura finantzatzea, gizarte segurantzari iruzur egitea, zerga iruzurra eta dirua zuritzea" egotzita.

Navalcarneron isolatuta

Bere senitartekoei adierazi dutenez, egun Fran Balda Navalcarneroko espetxean dago, isolamenduko moduluan, beste kideekin inongo kontakturik gabe. Egunean 22 ordu pasatzen ditu ziegan. Bere

atxiloketa eta espetxeratzea salatzen eta arbizuarren askatasuna eskatzeko manifestazioa deitu dute igandeko, 18:00etan, Arbizun. Mobilizazioak *Konponbideari erasorik ez. Fran etxera!* leloa du. Balda eta gainontzekoen atxiloketa "euskal preso politikoak politikoki, juridikoki eta sostengu aldetik isolatzeko engarrensaia" izan direla salatu dute.

Manifestazioan parte hartze-ko deia

"Euskal preso politikoak etxean behar dute egon eta, horretarako, lehen pausoa salbuespeneko neurriekin bukatzea da, euskal jendar-tearen gehiengoaren nahiak eta europar epaitegiek erakutsi duten bezala. Etxeratzea atzeratu nahi du estatu espainiarrak, jakinda ere zein izanen den bukaera: etxeratzea" adierazi dute manifestazioaren sustatzaileak. Manifestal-



Atxiloketa ondoren senideak Guardia Civilei argibide eske. ARTXIBOA

dian parte hartzea eta egunero-koan euren atxikimendua eta babesa adieraztera deitu dituzte sakan-darrak, "eguneroko lan txiki handiak irekiko digulako bidea,

erasoei erantzutea baino bidea egiteak garrantzi gehiago hartzen duen honetan, ezberdinen artean ere indarrak bilduz eta sortzen ari den Sare herritarra indartuz".

» Altsasu

«Edurnerekin bat» dinamika abiarazi dute



Donostian eratu zen herri harresian altsasuar bat atxilotu zuten.

Donostiako herri harresian atxilotu zuten gazte altsasuarra otsailaren 25ean epaituko dute. Dinamikak "polizia muntaia etetea" eskatu du

Donostiako Instrukzioko 2. Epaitegian bi akusaziora aurre egin behar-ko dio Edurne Martinezek otsailaren 25ean: ertzain bat erasotzea eta agintearen kontrako erasoa. Horiengatik 15 hilabeteko espetxe zigorra eta isuna eskatzen diote. 2013ko apirilaren 19an Donostiako Boulevardean eratu zen herri harresian Martinez atxilotu ondoren leporatu zizkieten kargu horiek.

Epaiketaren aurrean Martinez babesa emateko eta auzia salatzeko sortu da *Edurnerekin bat* dinamika: "Argi dugu epaiketa politikoa izanen dela, militantzia politikogatik atxilotuak eta epaituak izanen ziren gazte batzuen-ganako elkartasun ekimen batean atxilotu baitzuten". Dinamika-tik antolatutako ekimenetan parte hartzea deitu dute.

Asteazkeneko azokan gazte

altsasuarraren kasuari buruzko informazio orriak banatzen ari dira. Batzarrak ere antolatu ditu dinamikak. Horretaz aparte, bestelakoak iragarriak dituzte: **otsailaren 3an**, asteartean, 19:00etan, Iortia kultur gunean prentsaurrekoa emanen dute eta ondoren batzarrak egin; **otsailaren 13an**, ostiralean, 19:00etan, elkartasun ekitaldia izanen da kultur gunean; **otsailaren 21an**, larunbatean, inauteri egunez elkartasun eguna antolatu dute eta **otsailaren 25ean**, asteazkenean, Donostiako auzitegira joateko deia luzatu dute.

Akordioa

Altsasuko Udalak atzo egindako bilkuran Edurne Martinezek elkartasuna adieraztea eta eginen diren dinamiketan parte hartzea erabaki zuen. Aldi berean, epaiketa bertan behera uzteko eskaera egin du. Hura epaituz gero, gaztearekin batera Donostiara joateko erabakia

Atxiloketaz

Egun hartan Segiko kide izate-agatik atxilotuak izateko agindua zuten sei gazte babestera 800 bat pertsona elkartu ziren, herri harresia osatuz. Herri dinamikatik gogora ekarri dutenez, "erresistentzia pasiboaren eta desobedientziaren bidez aurre egin zioten polizia indarrei. Beste asko bezala bortizki ateratu zuten harresitik, iletik helduz eta handik tiraka, arrastaka, beste-enganetik askatu zuten arte". Dinamikako kideek diotenez Martinezek "erresistentzia pasiboa egin zuen eta ertzainen aldetik jipoiak eta mehatxuak baino ez zituen jaso". Edurne oraindik lurtean zela, "beste bi ertzain gainera bota eta haietako batek atxilo eraman behar zutela esan zion, beste bi ertzainen harridurarako". Herri harresia desegin eta segi gazteak atxilotu arte Ertzaintzaren furgoneta batean egon zen Martinez. Handik polizia-etxera eraman zuten eta han jakinarazi zizkieten bere kontrako karguak.

hartu du udalak. Azkenik, epaiketa eguna iritsi bitartean udaletxean egunen atzera kontua erakusten duen *Edurnerekin bat* panela jartzea ontzat eman zuen udalak. EHBilduk alde bozkatu zuen, PPK kontra eta Geroa Bai, PSN eta IU abstenitu egin ziren. UPNk ez zuen bozketan parte hartu.

» Irurtzun

Geroa Bairen hitzaldia

Gaur, 19:30ean, Irurtzongo udaletxean. Nafarroako egoera politikoa aztertu eta koalizioaren oraina eta etorkizuneko proiektua azalduko du

Uxue Barkos eta Manu Aierdi izanen dira gaurkoan hizlari. Besteak beste, honakoak izanen dituzte hizketak: Nafarroako gaurkotatua, koalizioak diputatu kongresuan eta Nafarroako Parlamentuan egiten ari den lana, baita koalizioak aurrera begira dituen erronkak ere. Geroa Bai herrialdean barna halako hainbat aurkezpen egin ditu dagoeneko. Esaterako, azaroaren 28an Altsasun egin zuen.

» Etxarri Aranatz

Iyote garaia, atzo Gizakunde

Gaur hasiko dira Etxarri Aranatzko iyotiek, Gizakunde ospakizunarekin

Gizakunde ospatuz atzo hasi ziren iyote ospakizunak Etxarri Aranatz. Gizakunde gizon helduen eguna zen garai batean: txatarrak jantzita eskean ateratzen ziren eta bildutakoarekin afaria egiten zuten. Atzo kintoak izan ziren txatarrak jantzita etxe etxe eskean aritu zirenak; jakina, jasotakoarekin afari eder-rra egin zuten. Hurrengo bi ostegunetan ere gauza bera eginen dute kintoek, Andrekuden eta Garikunden.

Garai batean iyotetako bigarren ostegunean, Andrekuden, emakume helduak moztortuta eskean ateratzen ziren gero afaria egiteko. Gaur egun hainbat familia eta koadriletako emakumeak afaltzera biltzen dira. Aurreko urtean bezala, Udaleko Emakume Batzordeak Andrekunde eguna indartu eta Etxarriarrei hurbildu asmoz, herriko elkarteekin harremanetan jarri da eta ostegun horretan elkarte elkarte ibilbidea egiten da.

Garikunde gazteen arteko borroka eguna zen. Urte guztian zehar debekatuta zeuden kolpeak, eta egun hau beraien arteko gorabeherak konpontzeko erabiltzen zuten. Maskubiak haizez bete eta jendea jotzen zuten, baita suko hautsa bota ere. Egun, txatarrak moztortuta eskean ariko dira.

Iyote egutegia

» Otsailaren 5ean, ostegunean

Andrekunde. Elkarte elkarte ibilbidea. Afaria.

» Otsailaren 12an, ostiralean

Garikunde. Kintoak txatarrak jantzita eskean. Afaria.

» Otsailaren 15ean, igandean

Zalduiyote. Haurrak txatarrak moztortuta elkarte elkarte ibilbidea.

» Otsailaren 17an, asteartean

Astearteiyote. Egun osoko ospakizuna.

» Irurtzun

Autodefentsa, emakumeendako

Irurtzunen, otsailaren 3an, 5ean, 10ean eta 12an, 10:00etatik 11:00etara

Luis Martil karate irakasle irurtzundarrak (5º DAN) emakumeendako autodefentsa pertsonala ikastaroa eskainiko du otsailean, Irurtzunen. Lau saioko ikastaroa izanen da, otsailaren 3an, 5ean, 10ean eta 12an eskainiko dena, goizeko 10:00etatik 11:00etara, Irurtzongo Kultur Etxean, dohainik.

Izena emateko

648 07 07 10 telefonora hots egin. Dohainik.

» Altsasu

Momotxorren dantza ikasteko entseguak abian

Otsailaren 11n eta 12an, 20:00etan, Intxostiapunta gazte txokoan

Otsailaren 17an izango da astearte ihotea eta beste behin Altsasuko inauterien konpartsa kalera aterako da, ihoteak puri-puritan bizitzeko. Momotxorroek bere dantza propioa dute, eta lhautek Batzordea aspaldi hasi zen momotxorren dantza ikasteko entseguak eskaintzen. Entseguak ilbeltzaren 28an hasi ziren Intxostiapunta gazte txokoan eta otsailaren 11n eta 12an izanen dute segida, 20:00etan. Dantza ikasteaz gain, bertan antolatzen dira momotxorren irteerako xehetasunak, kalejiraren nondik-norakoak eta abar.

» Altsasu / Olatzagutia / Ziordia

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea proiektu pilotu batean

Tramita izeneko web tresnaren bidez izapidetzeak telematikoki egiten hasi dira. Probaldiaren ondoren Nafarroa guztira zabalduko da zerbitzua

Burunda mendebaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen egoitza ordu batzuek ikasgela bihurtu zen aurreko ostiralean. Bertako langileak Tramita izeneko web tresnaren erabilera treratzeko saioa izan zuten. Izan ere, Egues ibarrekoarekin batera Burunda mendebaldekoa izan da Tramita web tresna probatzeko programa pilotuan sartu diren bi mankomunitateak.

Erkuden Imazek azaldu digunez, “tresna berri horren bidez Gizarte Inklusio Errenta, aparteko laguntza eta dependentziarako laguntza eskaeren izapidetzeak telematikoki egiten ditugu. Azkartasunean eta segurtasunean irabaziko dugu”. Hala, beharrezko datuak bete ondoren, Altsasuko bulegoko ordenagailutan Enter tekla sakatuta ordu eta data hori erregistro data gisa azalduko da Ongizate Departamentuan. Hala espedientei erantzuna emateko epeak murriztuko dira.

Departamentuak Nafarroako gizarte zerbitzuetako hiru boluntario eskatu zituen web tresna prestatzeko. Urte batez Imaz lantalde horretako kide izan da. Han web tresnaren ezaugarriak eta arlo teknikoan izan behar zituen aspektuak zehaztu zituzten. Lan bileretan parte hartu izanaren aitortza gisa Burunda mendebaldeko mankomunitatea programa pilotuan parte hartzeko aukeratu izan da. Aukeratuak izatea “pozik” hartu dute Labadero eraikinean aritzen diren langileek.



Ostiraleko ikastaroko irakasle eta ikasleak.

» Irurtzun

LABek 1.200 euro bildu ditu Ziburuko ikastolarendako

Ilbeltzaren 22an eraman zieten dirua eta Ziburuko ikastolak eskerririk beroenak eman dizkio sindikatuari

Ziburuko Kaskarotenea ikastolako ikasleak eskola publikoaren ondoren dauden etxola batzuetan daude eta Ziburuko auzapezak ez die bertan jarraitzeko baimenik ematen. Argindarrakentzeaz aparte, eguneko 100 euroko isuna jarri diete eta dagoeneko 8.000 ordaindu dituzte ikastolak bertan jarraitzeagatik. Sakanako LAB sindikatuak, egoera salatzeaz gain, enpresetan diru-bilketak abiarazi zituen, elkartasuna azaldu eta Ziburuko ikastolak dituen gastuak eta zorrak arintzen laguntzeko. Udazkenean GH Guema, GH Mecalsa, Aceros Moldeados, Magotteaux eta Sunsendeguin diru bilketa egin zuten eta 1.200 euro jaso zituen. Diru hori Ziburura zuzenean eraman zuten GH-ko LABeko ordezkari sindikalek hilaren 22an. Ziburuko ikastolako gurasoen elkarteko lehendakari Laida Mujikak egin zien harrera eta eskerririk beroenak emateaz gain, ikastolaren egoeraren berri eman zien. LABetik adierazi dutenez, hainbat ekimen egiten jarraituko dute, Ziburuko ikastola babesteko. Bestalde, Seaskak herenegun jakinarazi zuen Ziburuko ikastolarendako lurrak erosiko dituela 300.000 eurotan. Dirutzabiltzeko kanpaina abiaraziko du.

» Altsasu

Festen dataz aritzeko batzarra eta herri galdeketa loteslea

Aldaketarik ez bada, irailaren 13an, domekan hasi eta ostegunean bukatuko lirateke festak. Ospakizunerako astebururik ez izateak zeresana sortu du

Herriko festen dataren inguruan galdeketa loteslea egitea erabaki zuen Altsasuko Udalak herenegungo bilkuran. Kontsulta egin aurretik altsasuarrak batzarrera deituko dituzte data aldaketarako argudioak azaldu eta gizarteratzeko. “Festa egutegiaren inguruan gizarte akordioa lortzeko batzarra informazio eta alternatiba sortzailea izatea” nahi du udalak. Batzarraren lehen zati batean argudioak emanen lirateke eta bigarrenean proposamenak luzatuko lirateke, baina metodologia oraindik zehazteko dago.

Batzar horretatik aterako da kontsultako galdera zehatza. Aldi berean, batzarrak erabakiko du festen data mantentzea, soilik aurtengorako konponbidea bilatzea edo etorkizunerako konponbidea galdetzen duen. Parte-hartze batzordeak aurreko ostegunean egindako proposamena osotasunean bere egin zuen udalak. Batzordeko kideak aldaketaren alde daude. Batzarra behar bezala prestatzeko Altsasuko Udala asteartean elkartuko da.



Festa eztanda izanen da. Noiz? Hori da kontua.

Kronologia

1905. Festa eta feriak urriaren 20tik 24ra ospatu ziren. El Eco de Navarra egunkariak hilaren bostean zehaztu zuenez, “festak urriko azken hamarrekoan ospatzen dira”.
1918. Udalak erabaki zuen festak eta feriak bertan behera uztea. Arrazoia urte hartan hainbeste jende hil zuen gripe epidemia izan zen. (El Pensamiento Navarro, 1918-10-19).
1929. La Voz de Navarra egunkariak herrian zabaldua zegoen zurrumurru baten berri eman zuen: “gure udalak festen data aldatzeko asmoa du euriak haiek zapuztu ez ditzan”. Plebiszitua eginen zela aipatu zuen eta festak abuztuaren 15era aldatzearen alde agertu zen (La Voz de Navarra, 1929-10-30). Diario de Navarra ere gaiaren berri eman zuten eta iraileko gurutzera aldatzea

proposatu zuen, “nekezaritzako lanak despedituak daudelako” (Diario de Navarra, 1929-11-07).

1930. Festak irailean ospatu ziren aurreneko aldiz, 14tik 17ra (La Voz de Navarra, 1930-08-26). Feriak urriaren 26 eta 27an izan ziren (El Pensamiento Navarro, 1930-10-15).

1933. Festak irailaren 16tik 20ra ospatu ziren (La Voz de Navarra, 1933-09-07).

1934. Festak irailaren 15etik 19ra ospatu ziren (La Voz de Navarra, 1930-09-09).

1935. Festak irailaren 14tik 18ra ospatu ziren (La Voz de Navarra, 1930-09-11).

2009. Festak irailaren 10etik 14ra ospatu ziren.

2009-10-04 Herri galdeketa egin zen. 1.436k data ez aldatzearen alde bozkatu zuten eta 332 aldatzearen alde.

Mozioak

Altsasuko Udalak Hassanna Aalia gazte palestinarri asilo politikoa ematearen aldeko adierazpena onartu zuen (parte hartu ez zuen UPN salbu, denak alde). Aldi berean, “amerikar eta europar inperialismoak Kieveko txotxongiloen laguntzaz Donetsk eta Luganskeko herri errepublikaren kontrako kanpaina belikoa” salatu zuen (EHBildu, Geroa Bai eta IU alde; PSN eta PP abstentzioak; UPNK ez zuen bozketan parte hartu). Guardia Civilak presoan abokatuen eta haien alde lanean ari ziren pertsonen kontra eginiko operazioa salatu eta preso daudenen askatasuna aldarrikatu zuen Altsasuko Udalak eta igandean, 18:00etan, Arbizuko manifestazioan parte hartzera deitu du (EHBildu alde, PP kontra; Geroa Bai, PSN eta IU abstentzioa; UPNK ez zuen parte hartu). Bestalde, Siryza alderdi grekoaren garaipegatik poza azaldu zuen IUk eta aurkeztutako mozioa erretiratu zuen.

Eskela

Ander Ganboa Aizpun

(Andra Mari ikastolako ikasle ohia)

Amets bat baldin bada
betiko bizia
amets ederrena da,
amets da guztia.



Andra Mari ikastolako guraso, langile eta ikasleak

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en doan
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Lehiaketak

Mikro-lpuin lehiaketa. Euskara Kultur Elkargoak eta Pamiela Etxeak A-D ereduak Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako lehiaketa parte hartzeko epea ilbeltzaren 31n bukatuko da. Informazioa <http://www.euskarakultur.org/eus/arauk-2014>

Oharrak

Odol-emaileak. Otsailaren 3an Uharte Arakilen eta Lakuntzan arratsaldean.

Axioren dokumentala. Jose Ignacio Flores buruzko dokumentala egiteko diru-laguntza eman nahi duenak ES04 3035 0112 00 112055951 kontu korrantean edo www.karena.eu plataformaren bidez egin dezake. Informazio gehiago www.axioflores.com

Ikastaroak

Belaundaldietan zeharreko terapia.

Irakaslea: Jesus Garcia Paria, zenbakien bidezko sendatzailea. Altsasuko San Pedroko bidea 25 landaetxean, otsailaren 22an, igandean, 9:30etatik 20:30etara. Erreserbak Valen 650 02 36 98. Bazkaria 15 €, mantenu osoa 50€. Ez ahaztu USBa ekartzeko.

Olatzagutiko Erburua kiroldegian azken plazak.

Pilates, indoor zikloa, aerodance, mantentze soinketa eta yoga ikastaroetan azken plazak betetzeko daude. Otsaila eta maiatza bitarteko ikastaroak. Informazio gehiago kiroldegian edo 948 56 45 12 telefonoan.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 564 355
679 160 116 | 24 orduz

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com



Ander Gamboa Aizpun

Gazte ezagutu eta gazte izanik utzi gaituzu gugan dirauzu eta iraungo duzu. Gure bihotzetan, Ander.

Andra Mari ikastolako 88ko ikaskideak



Tomasa Napal

III. urteurrena

Zinena beti hiltzen da beste zerbaite izateko.

Zure familia

2015eko urtarrilaren 30ean.



Ander Ganboa Aizpun

Gozamena izan da, Ander, zu ezagutzea eta zurekin lan egitea. Benetan!

Moldeoko zure lankideak

Joxe Mari Martinez Enekoitz Mendiola

25. urteurrena

Zuen kintuek



Ander Ganboa Aizpun

Ez zaitugu inoiz ahaztuko

Sakana S.Koop-eko zure lankideak

Lakuntzan, ilbeltzaren 30ean.



Jesus Mari Jaka Maiza



Beti gu tartien yonen za.

Zure 1969ko kintuek

Ander Ganboa Aizpun

arbazuarrari

Arbazuar guziek familiyen miñeekin gode.



Arruazuko Udala



JAIOTZAK


- **Ianire Sos Beregaña**, ilbeltzaren 15ean Uharte Arakilen.
- **Unai Leza Zubeldia**, ilbeltzaren 16an Arruazun.
- **Sara Serrano Zabaleta**, ilbeltzaren 19an Irurtzun.
- **Aratz Alonso Nuñez**, ilbeltzaren 20an Iturmendin.
- **Adei Nuñez Barbadillo**, ilbeltzaren 23an Etxarri Aranatzen.

HERIOTZAK

- **Martina Flores Lakuntza**, ilbeltzaren 16an Lakuntzan.
- **Manuela Perez Nevado**, ilbeltzaren 19an Altsasun.
- **Maria Lourdes Lizarraga Flores**, ilbeltzaren 21ean Arbizon.
- **Ander Ganboa Aizpun**, ilbeltzaren 24an Arruazun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu. Bidai mezua zorion@guaixe.net -era edo hots egin **948 564 275** telefonora.



TXIRRINDULARITZA

ERBITI ETA RURAL KUTXA MALLORCAN: Atzo hasi zen eta igandean despedituko da Mallorcako Challengea. Bertan ariko da

Imanol Erbiti (Movistar) eta bertan mustuko du denboraldia Rural Kutxa-Seguros RGA taldeak.

Aizkora



Iban Resano eta Aitor Senosiain lanera

Zilarrezko Binakako Aizkolarien Txapelketako azken jardunaldia jokatu dute igandean Rivabellosan (12:45)

Igandean Zilarrezko Binakako Aizkolarien Txapelketako azken jardunaldia hartuko du Rivabellosak (Ara), 12:45ean. Zehazki, D multzoko lehen postua dute jokoan lehiari ariko diren 3 bikoteak: Jose Angel Zubiaga-Iñaki Kintana, Luis Toledano-Andres Trilla eta Aitor Senosiainekin bikoa osatzen duen Iban Resano dorrobarrak. 5 lan burutu behar koditu biko bakoitzak, guztira 8 enbor erdibitzeko.

A, B, C eta D multzoetan lehenak sailkatzen direnak Zilarrezko txapelketarako finalerdietarako sailkatuko dira zuzenean, eta bigarrenak eta hirugarrenak bigarren fase batean beste aukera bat izanen dute, finalerdietarako bi toki baitaude hutsik. Ea dorrobarrak eta Aitor Senosiainekin aurrera egiten duten.

Pilota

Espainiako Kluben Arteko Txapelketa: Irurtzunek Titin III.aren kontra berdindu

Altsasuk atsedean jardunaldia zuen

Asteburuan Espainiako Kluben Arteko Txapelketako 3. jardunaldia jokatu zen. Esku pilotan, A multzoan, Irurtzunek Logroñoko Titin III.a izan zuen aurkari. Binakako partidari Ongayk eta Irañetak (Irurtzun) Kortabarrira eta Beobideri (Titin III.a) 2-10 eta 5-10 irabazi zieten, partida ederrean. Aldiz, banakakoan Armendarizek (Irurtzun) ezin izan zuen Cabrerizoren (Titin III.a) kontragaraipea lortzerik izan eta 10-7 eta 10-3 galdu zuen. Bestalde, B multzoan Altsasuk atsedean jardunaldia zuen.

BIHAR: ALTSASU-PAZ ZIGANDA

Bihar, larunbatean, 18:00etan, Altsasuk Paz Ziganda izanen du aurkari Burunda pilotalekuan. Banaka eta binaka lehiatuko dira bi taldeak. Sarrera dohainik izanen da.

Mendia

Mendi ibilbideen sarea mantentzeko 2015ean diru-laguntza emango duela azaldu du Nafarroako Gobernuak

Azken 3 urteetan ez du laguntzarik eman eta bere gain hartu du mantentze kostua Nafarroako Mendi Federazioak. Gobernuak ez du diru hori ordaintzeko asmorik

Ilbeltzaren 16an Iñigo Alli Gizarte Politikarako kontseilariak agerraldia egin zuen Nafarroako Parlamentuko Gizarte Politikarako batzordean, Bildu-Nafarroak, Aralar-Nafarroa Baik, Izquierda-Ezkerrak eta Geroa Baik eskatuta. Azken 3 urteetan Nafarroako Gobernuak Nafarroako Mendi Federazioari ez dio mendi ibilbideen sareko mantentze lanak egiteko diru-laguntzarik eman eta egoeraren larritasunaren aurrean kontseilariaren azalpenak entzun nahi zituzten.

2011ko 197/2011 Foru Dekretuak erabilera publikoko kirol ibilbideen sorrera eta mantentzea erregulatatu zituen. Nafarroako Gobernuak ibilbideak erregistratu eta baimendu behar ditu, hau da, Nafarroako Ibilbideen Sareko sustatzailea da Gobernuak, eta Nafarroako Mendi Federazioak mantentze lanak egiteko ardura du. Azken 3 urteetan Nafarroako Mendi Federazioak ez du diru-laguntzarik jaso eta federazioa eta bere 180 boluntarioak izan dira lan horren kostua bere gain hartu dutenak. Federazioak behin eta berriz azaldu du egoera

Alliren erantzuna oposizioari



Allik oposizioari erantzun zion 2008-2011n egindako inbertsio handiak 3 urteetan inbertsio gehiagorik egin behar ez izatea ekarri zuela. "Hori erakusten du gure ikerketako txostenak. Mendi federazioari argi esan genion lehentasun kontuengatik azken 3 urte hauetan ez zela diru-laguntzarik egongo. Hortaz, ez diogu inori ezer zor" nabarmendu zuen. "Txosten tekniko eskutan, ulertzen dugu 2015ean berriro mantentze kostuak gure gain hartu behar ditugula" gaineratu zuen. Hortaz, azken hiru urteetan federazioak bere gain hartutako kostua ez du bere gain hartuko Gobernuak.

"delikatua" dela, ezin zuelako gastu hau bere gain hartu, eta ibilbideei homologazioa kentzea ere egon da mahai gainean. Horrela, gaia Parlamentura iritsi zen.

Diru-laguntzak, aurten bai

Nafarroan 4 Ibilbide Luze (GR 12, GR11, GR 20 eta GR 220) daude, ia

800 km osatzen dituztenak. Iñigo Alli kontseilariak azaldu zuen Nafarroako 4 Ibilbide Luzeen Sarea seinaleztatu eta mantentzeko Nafarroako Mendi Federazioak egiten duen lan bikaina babestu egiten duela Nafarroako Gobernuak. Gogoratu zuen 2008 eta 2011 urte bitartean Nafarroako Gobernuak 420.000 euro

inguruko inbertsioa egin zuela ibilbidesarea errekuperatzeko eta markatzeko. Informazio panelak eta postea jarri ziren eta ibilbidea markatu zen. Lanak Federazioak egin zituen, 180 boluntarioei esker. "Nahiz eta federazioak ibilbideen mantentzea kolokan dagoela esan, Nafarroan senderismoa egiten jarraitzen da eta erregulatutako eta ez erregulatutako ibilbideen sare bikaina dugu gurean" azaldu zuen kontseilariak. "Hasieran egindako inbertsio potolo horren ondorio, lehentasunak ezarri behar izan ditugu. 2012, 2013 eta 2014an ez da diru-laguntzarik izan, baina teknikari bat bidali genuen ibilbideak nola zeuden aztertzeko. Txostenak dio leku puntual batzuetan izanez ik ibilbidea primeran zegoela. Federazioak egindako mantentze lan bikaina onartu behar dugu, eta proposatzen duguna da aurten, 2015ean, diru-laguntzen bidea berriro hartzea, ibilbideen mantentzea estaltzeko eta arazoa konpontzeko" azaldu zuen Allik.

Kontseilariak adierazi zuen proposatuko dela udaberriaren eta udazkeneko lehen egunetan Federazioko boluntarioek mantentze lanak egitea eta ondoren emango zaiela diru-laguntza.

Oposizioaren iritziak

Bilduko Bikendi Bareak kontseilariari eskatu zion hemendik aurrera ibilbideen mantentzerako Gobernuak emango duen laguntzaren zenbatekoa zehaztu dezala. "Mendi Federazioak 3 urteetan ez du laguntzarik jaso eta mantentze lana egiten jarraitu du, gastuak bere gain hartuz. Egindako gastu hori federazioari bueltatzea eskatzen dugu. Ibilbideen Sarea zainduta egotea garrantzitsua da mendizaleendako, beraien segurtasunerako eta, bide batez, Nafarroako turismorako eta ekonomiarako. Gobernuak urtero zein diru-laguntza emango dituen eta federazioari dirua bueltatuko dion jakin nahi dugu, bestela 2008-2011 artean Gobernuak egindako inbertsiopublikoa eta 180 boluntarioek egiten duten lana alperrik botatzea delako" nabarmendu zuen. Diru kopuru txikiez hitz egiten ari garela gaineratu zuen. "Urtero 30.000 euro ibilbideen mantentzera bideratzea ez da asko, egin diren beste inbertsioekin konparatuta" azaldu zuen.

Txenbo Jimenezek (Aralar-Na Bai) 2008-2011 bitartean ibilbideen sarea seinaleztatzeke egin zen

420.000 euroko inbertsioa zergatik egin zen gogoratu zuen. "Nafarroako Gobernuak laguntzarik eman ez zuenez, federazioak ibilbideak deskatalogatu behar izan zituen eta horregatik 2007an inbertsiopotoloa egin behar izan zen ibilbideen sarea errekuperatzeko. Eta orain, tamalez, ia egoera berbereragindoz. Garrantzitsua da ibilbideak ongi markatuta egotea eta mapak eguneratuta. Galdutako hiru mendizaleen erreskateak 20.000 euro baino gehiago balio du" azaldu zuen. "Inori ez litzaiokeen bururatuko Donejakue bideko seinaleztazioa kentzea. Hau berdina da. Gainera, Nafarroako turismorako potentzial ekonomiko handia du. Ibilbideak ongi badaude, kanpoko mendizale asko erakarriko ditu, ia 800 km-ko ibilbideak ditugulako. Duen erabilpen masiboari begira, mantentzerako 30.000 euro bideratzea oso merke da. Ibilbideak ongi ez izatea Nafarroa desprestigiaturiko luke. Federazioari azken urteko gastua ordaindu eta urtero mantentze kostua bere gain hartu behar dira" gaineratu zuen.

Iritzi berberakoa zen **Txema Mauleon (Izquierda-Ezkerra)**. "Diru

kopuru barreagarriez ari gara. Nafarroa Arena itxita mantentzeak 100.000 euro kostatzen zaigu. Eta Nafarroako mendi ibilbideen sarea egoera onean mantentzea 35.000 euro kostatzen zaigu urtero, aurrekoaren ondoan kantitate barreagarria. Gainera, Mendi Federazioen boluntarioek egiten dute mantentzelana. Gobernuak egingo balu kostua askoz handiagoa litzateke. Ezin daiteke 420.000 euroko inbertsio potoloa egin eta gero mantentze lanak ez ordaindu. Federazioari dirua bueltatzea eta federazioarekin urtero hitzarmen egonkorra izatea eskatzen dugu" azaldu zuen.

Geroa Baiko Patxi Leuzak gaineratu zuen ibilbideen sarean mantentzea gastu bat izan beharrean inbertsio bat bezala hartzea, ongi seinaleztatutako ibilbide batek turismoa, kontsumoa eta beste erakartzen duelako. "Inbertsioa merezi du. Gaurko komunikabide batean azaltzen zen Gobernuak 20.000 euroko kopurua zehazten duela, baina Mendi Federazioak 35.000 euro eskatzen baditu, eta hori da euren minimoa, horrela beharko luke izan" nabarmendu zuen.

UPN-ko Jose Antonio Rapunek azaldu zuen garrantzitsua zela ibilbideen mantentzerako diru-laguntzetara berriro bueltatzea. Boluntarioen lanari esker ibilbidea bikain mantendu dela adierazi zuen. "Garrantzitsua da arazoa konpondu dela eta mendi ibilbideen sarea ongi egotea interesatzen zaigula, turismoagatik, ekonomiaagatik, segurtasunagatik eta sozialki ere inportantea delako".

Alderdi Sozialistako Mariadel Carmen Otxoak azaldu zuen 2013an eta Landa Garapen batzordean ibilbideen mantentzea egiteko Mendi Federazioari 35.000 euro ematea onartu zela eta harritua zegoen "hori gauzatu ez delako". "Diru hori postea jarri, margoa erosi, gasolina ordaindu eta boluntarioei bokata bat emateko erabiltzen zutela azaldu ziguten. Boluntarioen lana eta inplikazioa baloratu behar dugu. Askok kostatu da ibilbide horiek markatzea eta Federazioari egindako gastua ordaindu behar zaio eta hemendik aurrera mantentze kostuak gobernuak bere gain hartu" eskatu zuen. **Amaya Zarranzek (PP)** azalpenak ematea eskatu zion Alliri.

Mendi lasterketak



II. Trikutraillean aritzeko izena ematea igandean zabalduko da

Lasterketa ekainaren 28an jokatu da eta www.kirolprobak.com web gunean eman behar da izena

Trikutrail taldeak antolatuta, ekainaren 28an jokatu da, Etxarri Aranatz, II. Trikutraila. 21 km-ko mendi lasterketa izanen da, 1.400 metroko desnibel positiboa duena. Gehienez ere 350 korrikalari onartuko dira.

Izena ematea igandean zabalduko da, otsailaren 1ean, www.kirolprobak.com web gunean. Ikusirik probak aurreko urtean izan zuten arrakasta-dortsal guztiak agortu ziren-Trikutrailean aritu nahi duten korrikalari izena ematea lehenbailehen egin dezaten gomendatu diete antolakuntzatik.

Atletismoa



Raul Audikana 20.a Idiazabalaren

568 korrikalari iritsi ziren helmugara, tartean 23 sakandar

Igandean 25. Idiazabalgo herri krosak jokatu zen, 10 km-ko proba. Helmugara iritsi ziren 568 korrikalarien artean azkarrena Asier Cuevas eibartarra izan zen (32:54). 23 sakandarrek osatu zuten proba, Raul Audikana buru zela. Olaztiarra 20.a iritsi zen helmugara (35:51).

Sakandarrak 25. Idiazabalgo herri krosan:

1.	Asier Cuevas	32:54
20.	Raul Audikana	35:51
78.	Joxeja Maiza	38:33
79.	Juan Luis Maiza	38:41
80.	Beñat Katarain	38:41
92.	Eukeni Goikoetxea	39:08
103.	Mikel Berdud	39:32
124.	Iñigo Maiza	40:02
149.	Egoitz Aldaz	40:55
153.	Juan Carlos Villalobos	40:58
156.	Martin Somocurcio	41:01
158.	Kaxi Estarriaga	41:02
177.	Juantxo Azurmendi	41:27
220.	Santi Agirre	42:40
241.	Xabier Aierdi	43:48
316.	Julen Arratibel	45:35
375.	Oscar Gomez	47:17
376.	Alberto Trevejo	47:17
407.	Maitte Zabaleta	48:32
522.	Ixa San Martin	54:37
529.	Silvia Perez	55:09
557.	Ismael Lopez de Goikoetxea	1:00:12
558.	Javier Ramirez de Alda	1:00:13
561.	Eduarne Razkin	1:01:18

Eskia



11 eskiatzailek osatu zuten Mank-ek eta Urbasa-Andia Ipar Ski Lagunak-ek antolatutako ibilbidea. ARZELUS

Urbasan eskiatzen, gustura

Mank-ek antolatutako eski irteeran 11 eskiatzailek hartu zuten parte

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Arbizuko Udalararen eta Altsasuko Mendigoizaleen Urbasa-Andia Ipar Ski Lagunak taldearen laguntzarekin, Urbasan ipar eski ibilaldia antolatu zuten igandean. 11 eskiatzailek erantzun zioten gonbiteari. Autobusa

Arbizutik atera zen, eta Altsasun geldialdia egin ondoren Urbasaino igo zen. Asmoa Otxaportilloko pistatik Bardoitzarantz 3 inguruko ibilbidea egitea zen. Urbasa-Andia Ipar Ski Lagunak taldekoen motoak pasatu ziren elurra zapaltzera, "baina bidea gogortuta eta egoera ez oso onean zegoenez, Udabeko saroirra joatea

erabaki genuen. Han eskiekin bidea egin genuen eta gustura ibilginen, ipar eskiaz gozatuz" adierazi digu Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak. Teknikariak gaineratu duenez, DYAKo Joseanek ibilbide guztia eskiatzaileekin egin zuten eta kanpina furgonetarekin zain izan zituzten Juanjo eta beste kide bat.

Areto futbola

Kolpe gogorra

Inter Movistar Magna Nafarroa Xotaren gainera pasa zen (0-9)

Atila eta humoak bezala. Inter Movistar bere zalditeria guztiarekin Iruñera etorri, 3.000 zalez bete zuten Anaitasuna Pabilioira atera eta Magna Nafarroa Xota taldearen gainera pasa zen, 0-9 irabazita. Porrot mingarria jaso zuten.

Partida hasieran Magnak beldurrik gabe jokatu zuen. Gainera, gol aukera politak izan zituen, tartean Carlitosek Interren zurtoinera bidalitakobi. Baina Interrek kontraeraso bat probestu zuten Rivillosek talde madrildarraren lehen gola egiteko. Atsedendira joan baino lehen beste bi gol sartzeko astia izan zuten Interrek. Bigarren zatian Inter Magnaren gainera pasatu zen. Xotak ahal zuten moduan agoantatzen zuten, eta guz-

Eta orain... Bartzelona liderra



Bartzelona da areto futboleko lehen mailako liderra (49 p.), puntu eskas batera El Pozo Murcia duela (48 p.). Magna Nafarroa 7.a da (30 p.). Eta hain zuzen ere liderraren kontra jokatu du Magnak larunbatean, 13:00etan, Bartzelonan. Partida konplikatu da, Bartzelonak eta El Pozo Murciak lidergoa baitute jokoan. Burua altxatzea, ez zaio besterik gelditzen Magnari.

tia okerrera joan zen arbitroak Jesulito aldageletara bidali zuenean, arbitroari protesta egiteagatik. Partida bateko zigorra jarri diote eta ezingo du bihar Bartzelonaren kontra jokatu. Azkenean 0-9 gailendu ziren Madrilgo oilarrak.

Imanol Arregik azpimarratu zuenez "burua altxatzea, lan egi-

tea eta ikastea, ez dago besterik". Partida hasieran taldeak izan zuten jarrera nabarmenduz "ia eurak baino hobe egon baikara", baina bigarren zatian "oso gaizki" lehiatu zirela nabarmendu zuten. Jesulitoren kanporaketaz ez zuela hitzik esan nahi azaldu zuten "jende horrekin oso erreta nagoelako".

Bunker lider, Arbizu eta Racing zelatan dituela

FUTSALSAKANA TXAPELKETA PURI-PURIAN JARRAITZEN DU

10. jardunaldiko emaitzak:

Auzomotojorik 7 - Arbizu K.T. 2
 Racing San Migel 13 - Arbizu harrobia 6
 Iturmendi 2 - Bunker 5
 Back Street Boys 4 - Hijos de la perla 7
 Arbizu harrobia 2 - Bunker 9 (atzeratutakoa)

Futsalsakana txapelketan errekorrak apurtu dira asteburuan. Racing San Migel Arbizuko harrobiaren gainera pasa zen (13-6), eta Racegeko Jesus Alvarezek 8 gol sartu zituen. Bestetik, Auzomotojorik taldeko etxarriarrek Arbizu hartu zuten menpean, eta lidergoa

galdu zuten arbizuarekin. Bunkerrek Iturmendi irabazi zion eta Hijos de la perla atzera ere sorpresa eman zuten, Back Street Boys menpean hartuta.

Gauzak estu daude. Bunker da liderra (21 puntu). Arbizu da 2.a (19 puntu) eta Racing San Migel 3.a (17 puntu). Atzetik dator Hijos de perla (13 puntu) eta Auzomotojorik, Arbizu harrobia eta Back Street Boys, 9 punturekin. Iturmendik ez du punturik biltzea lortu. Asteburuan 11. jardunaldia dago jokoan.

11. jardunaldia

Larunbatean Uharteko Arakilen 15:00etan: Arbizu harrobia - Iturmendi
 16:00etan: Arbizu K.T. - Racing San Migel (atzeratuko da)
 17:00etan: Hijos de perla - Auzomotojorik
 18:00etan: Bunker - Back S. Boys



Futbola

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa
 18. JARDUNALDIA

LAGUN ARTEA 2 - ZIRAUKI 3
 Minutu bateko isilunea gorde zen ehiza stripuz zendutako Ander Ganboaren omenez. Partida polita eta entretenigarria, Lagunek ez zuten galtzea merezi izan. Zirauki aurreratu zen eta arbitroak Laguneko Sala kaleratu zuten. Bigarren zatian Ander Unanuak berdintzea lortu zuten. Zirauki jokalaririk bat gutxiagorekin geratu zen eta Unanuak Lagunen bigarren sartu zuten. Zirauki bira berdindu zuten eta nahiz eta Lagunek gol aukera ugari izan, Zirauki behin iritsi zen Lagunen atera eta garaiaren gola sartu zuten.

Sailkapena >>

1.	Mendi	44 p
11.	Lagun Artea	19 p

Asteburuko jardunaldia

MENDI - LAGUN ARTEA
 (Larunbatean, 16:15ean, Mendigorrian)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa
 18. JARDUNALDIA

ARROTXAPEA 5 - ETXARRI ARANATZ 1
ALTSASU 5 - MUTILBERA 1
 Etxarri liderrak lehen porrot potoloa ekarri zuten asteburuan Arrotxapeatik. Hasieratik irabaztera atera ziren iruindarrak. Arrotxaapeko Josuk 4 gol sartu zituen jarraian, eta nahiz eta Xabatek Etxarriaren aldeko gola sartu, azkenean 5-1 galduta itzuli ziren etxera. Bestalde, Altsasun gol festa ederraz gozatu zuten, Altsasuk 5-1 hartu baitzuten menpean Mutilbera. Reparazek Altsasu aurreratu zuten, eta nahiz eta Mutilberak berdindu, Altsasurendako beste 4 gol sartu zituzten Reparazek, Darlingek, Davidek eta Aitorrek.

Sailkapena >>

1.	Etxarri Aranatz	43 p
5.	Altsasu	31 p

Asteburuko jardunaldia

ETXARRI ARANATZ - DONEZTEBE
 (Igandean, 15:45ean, San Donato zelaian)
ALTSASUK atsedend hartuko du

ELOMENDIKO TXAPELKETA. 2. fasea
 7. JARDUNALDIA

BAR POUKAS 0 - EGIARRETA 1
ZALDUAK atsedend jardunaldia zuten

A multzoko sailkapena >>

1.	Egiarreta	22 p
----	-----------	------

B multzoko sailkapena >>

1.	Maldartea	17 p
4.	Zaldua	14 p

Asteburuko jardunaldia

EGIARRETA - BIDEZARRA
MALDARTEA - ZALDUA

Futbola



Kimuen Futbol 8 Topaketak

Txapelketako 11. jardunaldia igandean, Altsasuko Dantzalekun

Mank-ek antolatutako Sakanako Kimuen Futbol 8 Topaketetako 11. jardunaldia jokatu da igandean Dantzalekun.

11. jardunaldia

Igandean, Altsasuko Dantzalekun
 10:30ean: Sayas - Urdiain
 11:30ean: Dantzaleku - Sutegi
 11:30ean: Arbizu - Lagun Artea
 12:30ean: Txartel - Mediolanum
 12:30ean: Kaixo - Tipi Tapa


Pilota

Lehengusuari eta lagunari eskainitako garaipena

Ezkurdiak eta Zabaletak 22-7 irabazi zieten Bengoetxeari eta Aretxabaletari (6 puntu). Berasaluze eta Zubieta sailkapenean bigarrenak dira (4 puntu), Artola-Albisu 12 tantotan utzi eta gero

Alberto Soto lehengusua auto istripuz zendu ondoren Joseba Ezkurdiak jokatzeko gai izango ote zen, hori zen asteburuko kezketako bat. Baina egin ahal zion omenaldi ederrena jokatzeko eta, ahal bada irabaztea zela erabaki zuen arbizuarrak. Saminak ematen duen amorru horrekin atera ziren Labriteko kantzara Ezkurdiak eta Zabaleta, eta orain arteko partidarik onena jokatuzuten, eta Oinatz Bengoetxea eta Andoni Aretxabaleta 7 tanto eskasetan utzi.

Bi sakandarrak primeran ari zirenean. Pilota gogor astinduzuten, erasoan bikain ibili zirenean eta defentsan ere sendo, eta jokoz kanpo utzi zituzten leitzarra eta bizkaitarra. Zabaletak pilotakada guztietan gozatu zuen eta soilik 4 akats izan zituen. Bi aldiz eraman zuen pilota erreboteraino. Ezkurdiak, berriz, ez zuen akatsik egin eta pilotari indar berezia eman zion. Bengoetxeak asko arriskatu zuen, baina tanto onak hutsegitekin tartekatu zituen. Sekulako erakustaldia emanda irabazi ondoren eta emozioa gainezka, negarrez utzi zuen



Ezkurdiak bikain jokatu zuen.

Binakako Txapelketa. 7. jardunaldia

Retegi Bi-Rezusta / Artola-Albisu (ostiralean 22:00etan Bergaran. ETB1)

Xala-Merino II / Ezkurdiak-Zabaleta (larunbatean, 17:30ean, Idiazabalen)

Berasaluze-Zubieta / Oinatz-Aretxabaleta (larunbatean, 17:30ean, Markinan)

Irujo-Barriola / Olaizola II-Beroiz (igandean, 17:00etan, Bilbon. ETB1)

Sailkapena:

Ezkurdiak-Zabaleta	6 puntu
Berasaluze-Zubieta	4 puntu
Artola-Albisu	3 puntu
Irujo-Barriola	3 puntu
Oinatz-Aretxabaleta	3 puntu
Xala-Merino II	2 puntu
Retebe Bi-Rezusta	2 puntu
Olaizola II-Beroiz	puntu 1

kantxa arbizuarrak. “Ez digute jokatzeko ere utzi; beste maila batean egon dira. Euren pilota bizia zen, baina horri ere eman egin behar zaio” adierazi zuen Aretxabaletak.

Zabaletak azaldu zuenez “Albertoren heriotzaren ondoren gogo gehiagorekin eta amorru pixka batekin atera gara jokatzera”. Izan ere, Ezkurdiaren lehengusu Alberto Soto ere pilotan aritu izan zen, afizionatuetan. “Txikitatik jokatu genuen berarekin, elkarrekin eta elkarren kontra, eta batzuetan gurekin entrenatzen zuen Labriten” nabarmendu zuen etxarrendarrak. “Sei garaipenekin eta galdu gabe egongo ginela esaten badigute, ez genuke sinistuko” gehitu zuen.

Datorrena

Ezkurdiak eta Zabaletak Xala eta Merino II izanen dituzte aurkari bihar Idiazabalen, eta egun berean, Pablito eta Zubieta Oinatz eta Aretxabaletaren kontra jokatuko dute Markinan.

Zubieta eta Berasaluze bigarrenak



Ezkurdiak eta Zabaletak orain arte jokatutako 6 partidak irabazi dituzte eta sailkapenean buruan daude, 6 punturekin. Bigarren postura Aitor Zubieta etxarriarra eta Pablito Berasaluze bizkaitarra igo dira (4 puntu), igandean, Eibarren, Artolari eta Albisuri 22-12 irabazi ondoren.

Binakako aurreko 5 partidetan sekulako maila eman ondoren, Albisuk ez zuen bere eguna izan. Igandean ez zen fin ibili. Dozena bat inguru akats pilatu zituen atundarrak, eta horrek, Artolak egindako beste 5 akatsak gehi-

tuz, garaipena eman zien Berasaluzeri eta Zubieta. Partida honean sailkapenean bigarren postua zegoen jokoan, eta etxarriarren eta bizkaitarren alde erori zen. Partidari hasiera bikaina eman zioten Berasaluzek eta Zubieta. Zortzi tanto jarraian lortu zituzten. Zubieta Albisuk baino gehiago eman zion pilotari, eta Berasaluzek ongi asmatu zuen aurrean. Horrela, abantaila hartuzuten, eta Artolak eta Albisuk akatsak pilatzen jarraitu zuten, garaipen osoa lortu zuten Berasaluzek eta Zubieta.

Ikastola, dena bat dator



txioika.haur.ikastola@inigoaritz.com
948 37 30 23
ALTSASU



INIGO ARITZA IKASTOLA
ikastola@inigoaritz.com
948 56 29 51
ALTSASU



etxarri@ikastola.net
948 46 02 86 · ETXARRI ARANATZ
948 46 10 77 · ARBIZU

Eneko Lazkoz Donostiako 46. Bertso Egunean



Bihar, 18:00etan, Donostiako Kursaleko Areto Nagusiko ekitaldi nagusian ariko da etxarriarra

Donostiako Udalak eta Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak 46. Bertso Eguna antolatu dute larunbaterako Donostian, *Jolas-tunahi?* lelopean. Egun osoko ekitaldia izanen da: 12:00etan Donostiako kaleetan bertsolariak kantuan; 18:00etan ekitaldi nagusia Kursaleko Areto Nagusian eta 21:00etan afaria eta festa Manteo

kiroldegian.

Interneten eta EITBn

Kursaaleko ekitaldi nagusian 12 bertsolari ariko dira, tartean Eneko Lazkoz etxarriarra (duela bi urte ere aritu zen). Eta berarekin batera Unai Iturriaga, Unai Agirre, Nerea Ibarzabal, Alaia Martin, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Nerea Elustondo, Onintza Enbeita, Sustrai Colina, Andoni Egaña eta Amets Arzallus. EITBk ekitaldia grabatuko du eta gaueko hamarretan eskainiko du oso-

Sarrerak erosteko:

www.bertsosarrerak.eus

Ekitaldi nagusirako sarrerak www.bertsosarrerak.eus helbidean erosi daitezke. Sarrerarik gelditzen bada, egunean bertan 16:00etan zabalduko da Kursaleko leihatila. Informazioa: www.bertsozale.eus.

rik ETB1 katean. Horretaz gain, zuzeneko emankizuna egingo du www.bertsoa.com atariak.

bazterretik

Galder Gonzalez Larrañaga

Altsasuko jaiak

Lehen kanpoan bizi bazinen gutxitan enteratzen zinen herrian gertatzen ziren gauzez. Orain, teknologiari esker, askoz errazagoa da eztabaidak jarraitzea, gertakariak ulertzea eta azken albistearen berri edukitzea. Eta ez da bakarrik Guaixe edo Hitzondo, badira ere sare sozialak, Whatsapp eta bestelakoak. Informazioa jasotzeko bideak anitzak dira, eta guztietan badago zer jaso.

Sarearen bidez jaso dut Altsasuko jaien data aldaketaren inguruko eztabaida. Lehenengo albiste bidez, eta gero interpelazio zuzen bidez Twitterren. Kanpoan bizi garenok ere disfrutatu nahi izaten dugu herriko jaietan. Eta ez da erraza. Aurten izango dituen datekin, igande batean hasi eta asteazken edo ostegun batean bukatuta, zinez ezinezkoa izango da txupinazoaz gain beste ezertaz disfrutatzea. Eta ez naiz bakarrik: geroz eta gutxiago dira, tamalez, Altsasun lan egin eta, beraz, jai-egunak har ditzaizaten lanean. Geroz eta gehiago dira kanpora joan behar direnak eta ezingo dutenak jaietan parte hartu. Gogora ekarri nahi dut: jaiak parte hartzeko dira, ez bertan egoteko.

Aspaldi komentatu nuen, agian jaien inguruko aurreko polemika egon zenean, ikasleek geroz eta zailago izango zutela jaietz disfrutatzea. Begira Bologna Prozesuak egin duen mina Unibertsitateko ikaslearen artean. Begira, bestela, ze zaila den LH ikasten dutenek 4 egun galtzea. Begira, bestela, zein zaila den unibertsitari bat taberna batean kontratatzea ikasten egon behar badu.

Ezingo dut bozkatu, jada ez bainago Altsasun zentsatuta. Bai eskatuko nizeuke jaiak parte hartzeko direla uste duzuenen bi aldiz pentsatzea gaur egungo eredu finkoak sortzen dituen arazoak, herritarrengan (zergak ordaindu eta disfrutatu ezin dutenengan) zein negozio ezberdinetan (bezerorik gabe, langilerik ez!). Jaien inguruko eztabaida berriro irekitzeko garaia da, dogmatismorik gabe, aukera guztiak mahai gainean jarrita. Guztion dena, guztiok disfruta dezagun.

Altsasuko kultur guneak %8,5 erabiltzaile gehiago

Zinema, zuzeneko ikuskizunak, erakusketak, aurkezpen-hitzaldiak eta haurrendako ipuin kontalariak. Horiek dira Altsasuko Udaleko Kultura Sailak Iortia kultur gunean kudeatzen dituenak. 2014an 190 jarduerak, 38.500 ikusle erakarri zituztenak. Betisa Anda kultur teknikaria "oso kontentu" dago joan den urteko memoriaren datuarekin, "beste toki batzuetan publikoa galtzen ari dira".

Nafarroako Antzoki Sare barruan dago Iortia kultur gunea. Sare barruko bilerak kalitate estandarrik lortzeko baliagarritzat jo ditu Andak, (on-line txarteldegia...). "Antzeko publikoa, programazioa edota kezka komunak ditugun teknikarien artean sortzen dira programa partekatua". Hori da Altsasuko kultur gunearen programazioa osatzen duen ildoetako bat. Aurreko urtean, gainera, Espainiako Kultura Ministerioaren Platea programak "normalean gure esku ez dauden taldeak ekartzeko aukera eman zigun. Konpainiak, publikoa eta gu gustura gelditu ginen. Baina aurtengo deialdian irizpideak aldatu, murriztu, egin dituzte. Ikusi behar", esan digu kultur teknikariak.

Arte eszenikoa



58 kontzertu, antzerki eta dantza emanaldi programatu ziren joan den urtean Iortian, aurreko urtean baino 11 gehiago. Horrek ikuslegoa %25 handitzea ekarri du (10.272tik 13.452ra). Baina hazkunde horren atzean ere ikusleen hazkunde dago, batzuek beste aretoa %75ean bete baita. Hamar alditan sarrera guztiak ere saldu ziren. Golden Apple Quartet, El Brujo, Tricicle, Nina Calcetina edota Clinc daude horien artean. Bestalde, Haize Berriak bandak, Trasteandoko edo Tarima Beltzak bigarren funtzioak egin behar izan zituzten ikusleen eskaera asetzeko. Zuzeneko ikuskizunetarako abonamendua, deskontuak, eskaintzen hasi da Iortia kultur gunea. Urte sasoi bakoitzerako zuzeneko hiruzpalau ikuskizunetarako eta zinemarako sarrera bat 40 euro baino gutxiagoan eskaini izan dira. Andak jakinarazi digunez, aldiro ehun abonamendu pasa saltzen dira. "Denetara etortzen diren ikusleak dira. Ez dakit abonamenduak erakarri dituen edo lehendik ere kultur gunera etortzen ziren", esan digu kultur teknikariak.

Erakusketak



Aurreko urtean baino erakusketak bat gehiago, 11, hartu zituen Iortiak. 7.650 bisitari izan zituzten, ikuslegoaren %20ko jaitziera. Altsasuko Udaleko Kultura Sailak "eskaintza handitzeko, erakusketak politika birpentsatuko du". Hurrengo kultura batzordean aztertuko dagaia. Andak adierazi digunez, jaitzieraren arazoietako bat izan daiteke garai batean Gure Etxea eraikinean ikusgai zuden erakusketak batzuk gaur egun Iortian daudela ikusgai. Aurreko eraikinak ez du zaindaririk eta antolatzaileen ardura izaten da zaintza lana.

Abonamendu eskaintza

Titzina Teatreraren *Distancia siete minutos* (igandean) eta Txalo Produksioaren *El tipo de la tumba de al lado* (otsailaren 14an) eta *A vueltas con la vida* (martxoaren 14an) antzezlanak eta zinema sarrera bat 28 euroan eskuratu daiteke Iortian, sarrera bakarka erosi baina bederatzi euro merkeago.

Zinema



Joan zen urtean 70 film eman zituzten Iortian, aurrekoan baino bat gutxiago. Ikuslegoa %7,5 igo da (10.635etik 11.438ra). Hazkunde gaurkotasunezko (4.748tik 5.648ra) eta forum (1.381etik 1.733ra) emanaldietan izanda. Baina haurrendako zinema emanaldiek ia 500 ikusle galdu dituzte (4.506tik 4.057ra). Film arrakastatsuen artean *Lasa eta Zabella*, *El niño*, *La ladrona de libros*, *Frozen en el reino del hielo*, *Futbolin* eta *Caminando entre dinosaurios* izan ziren.

Lastailean Iortia areto handian zinema proiektore digitala jarri zen eta, horrela, gaurkotasun handiko filmak azkarrago iritsi dira Altsasura. "Udazkenetik aurrera gehiago bete da aretoa. Orduan etorri dira titulu berrienak. Baina ilbeltza eta maiatza bitartean ere gora egin zuen ikuslego kopurua", esan digu kultur teknikariak. Horretan zinema merkeago ikusteko hiru, bost eta zortzi filmetarako abonamenduen salmentak zerikusia dutela garbi du Andak. "Gehien saltzen direnak zortzi sarrerako txartelak dira", zehaztu digu. Ostegunetan, 19:00etan, ikuslearen eguna eskaintzen hasi da Altsasuko Kultura Sailak eta ikuslegoan duen eragina aztertu beharko da.

Hitzaldiak



Iortiak 2014an aurrekoan baino zortzi hitzaldi edo aurkezpen gutxiago hartu zituen, 54. 4.262 pertsona izan ziren haietara joan zirenak. Arlo honetan jarduerak kopurua jaitzeak 330 lagunengain jaitsiera ekarri zuen.

Ipuinen uea

Azken bi urteetan haurrendako emanaldi bera programatu da, zortzi. Beti hileko azken ostiralean, 19:00etan. Hitzor du finko bat txiki eta gurasoendako.

Internet

www.iortiakultura.com ataria martxan jarri zenetik 18.382 bisita eta 9.646 erabiltzaile izan ditu. Facebook-en Iortiak 1.728 lagun ditu eta Twitterren @iortia_profileak 203 jarraitzaile.

Agirrereren arte ibilbidea

Otsailaren 8ra arte 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean

Angel Antonio Agirrek astelehenean zabaldu zuen Iortian pintura eta eskultura lanak jasotzen dituen erakusketa. Akuarela paper gainean txinako tinta erabiliz 90eko hamarkadatik gaur egunera arte egindako lanen aukeraketa bat, bestelako koadroak eta dozena bat eskulturek osatzen dute erakusketa. Olaztiarrak esan digunez, "obra dagoeneko ez da nirea, ikusleak nahi duena interpretatzen du. Nik istorio bat pentsatu dut, baina ikusleak bere irakurketa egiten du".

Sarrerari bizkar ematen dioten lau koadro Agirrereren ikasketa garaia laburbiltzen dute: 1974ko gouachetxiki bat; Diego Pinorekin Olatzagutian sortutako Ikusmin pintura taldean aritzen zeneko zera eta olio bana eta, 1987an, Juan Etxeberriarekin Iruñeko Arte eta Lanbide-Eskolan egindako obra bat. Lan horiekin Agirrek bere ikasketa prozesua laburbildu du. Gainontzekoa bere ibilbide "pertsonalaren eta librearen" adierazgarria da.

Sortzaileak azaldu digunez, "betidanik ibili naiz zeramikarekin, egurrarekin edo pinturarekin. Eta horrek Ikusmin taldera (80ko hamarkada hasiera) eramanez ninduen. Olaztiar talde interesgarria elkartu ginen. Bukatu zen, baina bide polita egin zuen. Bihotzean dut. Erakartzen zaituen zerbaiteko dago, aritzen zara eta segida ematen diozu. Zurgindegibatean lanean nengoen eta nire kabuz dekorazio ikasketen lehen bi urteak egin nituen eta ikasle ofizial gisa gainontzekoak".

Pintura

51 koadro zintzilikatatu ditu Agirrek Iortian. Batzuetan obra bat baino gehiago ageri dira. Haietan Txinako tinta erabiliz egindako lanak

ikus daitezke. "Batzuek Txinako pintzelarekin (trazu lodia) eginak daude eta besteak hegazti lumenekin (trazu fina). Garai batean bezala, lumei mozketak egiten diet eta haiekin, esaterako, idazketa diruditen obra horiek egiten ditut".

Denetarako aukera dago tinta sorta horretan: "batzuk, oso eskematikoa izan arren, atzean figura bat sumatu daiteke; beste batzuk zehatzagoak dira; jendeak ikusi nahi duena ikusten duena, eskua oso aske daudenak... Ezer ez ulertzea da joera. Baina, nahigabe, beti figuratiboa den zerbaiteko agertzen da". Agirrek "landu, landu eta landu", pertsonak, animaliak edota arkitektura islatzen duten serieak osatzen ditu. "Ez dut seriea bilatzen, baina ohartzen zarenerako karpeta bat duzu".

Urteetan egindako lan ugari ditu eta Iortian hainbat serieren laginak daude. Kolore ezberdinetakoak dira, "hemengo dendetara joan eta dagoena hartzen baitut". Sormen prozesuari dagokionez, "buruan ditudan flashak dira, inolako modelori ez lotzeko. Araututakoaren garaia pasa zait. Ihes egiten diot".


Koadroen artean badira hiruzpalau Mioren obra gogora ekartzen dutenak. "tinta beltza, ondo txuri edo beixarengainean eginak daude". Paretan dauden obra guztien artean collage bat nabarmen-tzen da. "2000. ean eginda eta 2014ko damu batekin osatua. Figurati-boa da, baina bere istorioa du".

Eskulturak

Agirrek dioenez, "gorputzak pintura edo eskultura eskatzen du. Hauek (eskulturez), gehiago, arkitekturak dira. Geometrikoagoak dira. Kurbaren bat sartu dut, baina lerroa, zuzena... dira nagusi". Eskulturak osolinealak dira, bertikalitate handikoak, borobil bat izan ezik.

Eskulturen sortze prozesuaz azal-

du du ez duela pieza bakar bat propio sortu: "txatarra biltegira joan eta egoki jotzen ditudan piezak hartzen ditut. Biltzen noa eta halako batean ideia eta eskultura sortzen dira". Aurretik ez dumarrakirik egiten. "Berreskuratutako piezak dira eta haietatik abiatuta sortzen da eskultura". Ideiaz da berehala aitor-



tzen. Piezaren bat muturren aurrean luze izan du, opatu duen beste pieza batekin batera ideia sortzen den arte.

Berreskuratutako metala, zura, egurrezko kontratxapatua dira eskulturak egiteko erabili dituen lehengaiak. Iortian "aitari lapurtutako" zurarekin sortutako bi eskultura daude, erliebean egindako lerroak dituztenak. Koloretako formikadun kontratxapatuzko eskultura Inigo Aritzak ikastolako altzarien berrerabilpenetik sortua da, 2009ko maiatzaren 1eko izena du, egun hartan egin baitzuen.

Eskultura sortzeko elementuak nahieran kokatu ondoren, tratamendu garaia iristen da: "lehen eskulturak margotu egiten nituen, baina orain, gehiago, kalean uztearen zale naiz, herdoildu daitezten. Gustuko

dudan puntua hartzen dutenean jaso egiten ditut, herdoiltze prozesua geldiarazteko. Hasieran, pintura eta azido bidez eragiten nien herdoila, baina aspertu nintzen. Onena naturak bere bidea egin dezala".

Markoak

Paretan dauden margoek biltzen dituzten markoei haietan erreparatzeak ere merezi du. XIX. mendekoren bat ere badago zintzilik. "Antikuarioak, bigarren eskuko dendak, traperoak... halakoak bisitatzearen zale naiz marko zaharrak opatzeko. Pintura modernoekin egiten duten kontrastea gustatzen zait. Hori dekorazio lanbidearen ajea da".

Drama eta komedia zorientasunaz hitz egiteko

Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Bik gai bat hartu, haren gainean ikertu eta antzezlanak idatzi dute, ondoren hura jokatzeko. Sortzaileak eta, aldi berean, aktoreak Pako Merino eta Diego Lorca dira. Titzina Teatre. Gaia zorientasuna da. Baina handik abiatuta justizia, patua, giza-kion arteko distantziak eta itxialdia moduko gaietara iritsi ziren. Drama eta komedia konbinatzen dituen antzezlanean jaso dute guz-

tia: *Distancia siete minutos*.

Hainbat historia kontatzen dituzte Merinok eta Lorcak obran. Curiosity espazio robotak lur hartzearekin batera, Felix epaile gazteak bere etxea utzi behar du, terminen izurrite bat dagoelako, eta egun batzuetarako gurasoen etxebizitzara joan behar du. Epaitegi-tak galdekete eta aitarekin bizitzeak funtsezko gaiak aterako dituzte azalera, hala nola justizia, patua eta zorientasunaren iturrariak. Epaitegiko kasuetatik epailearen gurasoen etxeko egoerara,



aitarekin dituen elkarrizketetara eramanez gaituzte.

Bikotearen dramaturgiak obran zehar mugarrak, zeharkako gaiak, agertzen dituzte, akaberrako puzzleko piezak direnak. Obraren ezaugarriak dagokionez, bi aktoreek hainbat paper jokatz-

dituzte, baina ez dago jantzi aldaketarik, ezta jokatzeko modua, ahotsa edo egoera eszenikorik ere. Oholtza gainean eszenografia mugikor baten laguntza dute bi aktoreek. Egoerak markatzen dituztenak eszenografiako elementuak eta argiztapena dira.



Non erabili

BERGARA CENTRO OPTICO

AGURAIN

Graduatutako eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua.

JUGA TAILERRAK

ARBIZU

%10eko deskontua mantenu piezetan, %5eko deskontua gurpiletan.

ENERITZ ILEAPAINDEGIA

ETXARRI ARANATZ

%10eko deskontua Schwarzkopf produktuetan.

IZASKUN BEUNZA ARKITEKTOA

ALTSASU

%10eko deskontua obra berri eta eraikuntza berri proiektuetan, %20a ziurtagiri energetikoan eta energia fakturaren irakurketa eta analisisa doan.

EKIN

ALTSASU

100€ko erosketengatik 10€ko deskontu bala (beherapenetan izan ezik).

IOSUNE MARAURI

ALTSASU

Bakarko sesioetan %10eko deskontua

KIKI ARGAZKI DENDA

ALTSASU

15x20 cm-ko 8 argazkiko erreportaje batean beste bi argazki opari.

TANIA ARRAINDEGIA

LAKUNTZA

50 €ko gastuarekin, etxeko produktua doan.

LAKUNTZAKO OSTATUA

LAKUNTZA

Menuarekin, kafea edo kopa doan.



G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 100%	euria: 99%	euria: 99%	euria: 99%	euria: 99%	euria: 99%	euria: 97%
Min: 7 Max: 8	Min: 4 Max: 6	Min: 1 Max: 2	Min: -1 Max: 2	Min: 1 Max: 4	Min: 1 Max: 3	Min: 0 Max: 4

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	8	0.5	16.9
Etxarri A.	7.8	-0.3	40.4
Altsasu	7	-1	49.1
Aralar	3.3	-5.1	4.3
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia >>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
4	12	19	25

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Ilbeltzeko bazkide zozketa

CAMPING ARTAZA

LIGNA

Lacturale

ILBELTZEKO SARIAK:

1. Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta liburu lotea. 2. Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta liburu lotea.	3. Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta liburu lotea. 4. Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta liburu lotea.
--	--

>> 11 galdera

Marcos Reparaz

Jatorman-eko zuzendaria eta enpresaren fundatzaileetako bat

Testua: Eñaut Agirrebengoa Apaolaza



Irrati kuñak, iragarkiak, bannerrak, kartelak, eskuorriak...

:kastetxeendako matrikulazio kanpainak

Guaixe

KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@guaixe.net

Egin zure aukera lehenbailehen!

Argitalpen eta diseinu lanetan %Seko deskontua Bierrik Fundazioako bazkideei

1. Nola sortu zen Jatorman?
 Enpresa 1994an jarri zen martxan, merkatua oso gaizki zegoen garaian batean. Bi lagun bildu ginen, Balbino Bengoetxea eta neroni, bien artean enpresa bat nola sortu pentsatzeko. Bileran horretan planari forma eman genion. Momentu hartan ez zegoen tokirik apenas, beraz, gauza gutxiarekin hasi ginen. Horrela, planta batean ordenagailuak eta bestelakoak jarri genituen, eta horrekin jadanik diseinuak egiten hasi ginen.

2. Zein zen hasierako asmoa?
 Espezializazio bat sortu nahi genuen: piezak mugitzeko, manipulatzeko tresneria, hain zuzen. Manipulazio industrialean zentratu ginen, eta ildo horretatik jarraitu genuen ondorengo urteetan. Gure izenak ondo erakusten du zein zen gure hasierako asmoa: jator, gertukoa, jatorra, eta man, manipulazioa.

3. Orduan enpresa bat sortzea orain baino lan errazagoa ala zailagoa zen?
 Enpresa bat sortzea, zailtasun maila aldetik, beti berdintsua da. Gauza da momentu jakin batean norberak interes hori, inizatiba hori izan behar duela. Berria den zerbaitegiteko interesik ez baduzu, eta sakrifizio batean ez baduzu sartu nahi, ez duzu sekula ezer egiten.

4. Egun zertan diharduzue?
 Hasiera batean sektore askotan sartu ginen, pieza ugari mugitzeko helburuarekin. Ondoren, manipulazioarekin jarraitu genuen, baina beste lan batzuk gehitzen joan ginen. Hori guztia egin ondoren, pixkanaka espezializatzen

joan gara. Manipulazioa zentzu guztietan jorratu dugu, eta ondoren robotikan sartu gara.

5. 20 urte igaro dira. Urte hauetan guztietan zuen filosofiak aldaketarik izan du?
 Filosofia zentzu batean aldatu da bakarrik: hasieran guretzat errazak ziren produktuak ekoizten hasi ginen, baina ondoren ur sakonagoetan sartu ginen. Ezagunak eta errazak diren produktuak ekoizten badituzu, ziur asko kompetentzia maila altua izanen duzu. Hortaz, azken urte hauetan gure intentzioa produktua teknologia altuagoarekin sortzea izan da.

6. Langileek zer nolako prestaketa izan behar dute?
 Gaur egun 25 langile ditugu, eta horietatik 10 ingeniariak dira. Momentu honetan robotikan buru belarri sartuta gabiltza, eta horrek pertsonalak gaitasun handia izatea eskatzen dizu. Makina bat sortzeak, batetik, jakituria eskatzen dizu, eta, bestetik, esperientzia.

7. Krisiak gogor jo du Sakanan. Zuen gan zer nolako eragina izan du?
 Krisiak denoi eman digu ostiko handia. Krisia baino lehen interes handiko proiektuak genituen esku artean, baina beheraldi honek plan guzti horiek gelditu egin zituen. Aurrera egitea lortu dugu, baina nahiko genukeena baino gauza gutxiago eginez. Lan taldea behintzat ez dugu murriztu.

8. Nola lortu duzue pertsonala osorik mantentzea?
 Askotan sakrifizioak eginda. Zenbait urtetan nahiko gaizki ibili

gara, ekonomikoki momentu txarrak izan dira, baina argi izan dugu krisi egoera batean kalera-tzeak egiteak ondoren, behin krisia pasata, lana zail diezazukeela.

9. Zein enpresa eredu nagusitu beharko litzateke ibarreko egoera ekonomikoak hobera egiteko?
 Esfortzuan eta ahaleginean oinarritutako eredu bat. Esan bezala, gu egoera zail batean hasi ginen, baina sakrifizioari esker hemen gaude, 20 urte geroago, proiektu sendo batekin. Horrek zera erakusten du, hasiera zailatik etorkizun oparoko proiektuak sor ditezkeela. Gakoa lana gogor egiteko prest egotea da.

10. Egun mota askotako enpresei eskaintzen diezue zerbitzua. Zergatik dibertsifikatu duzue hainbeste zuen produktua?
 Zure lan gehiena enpresa baten esku badago, hori arrisku handi bat daukazu. Gu hasiera batean Gamesarekin hasi ginen. Game-sa mundu guztian zabaltzen da, eta horri esker, instalazioak herrialde askotan egin ditugu. Horrela, nazioarteko esperientzia horri esker, beste eremu batzuetara zabaltzen joan gara. Azken batean, gakoa norberaren produktua zabaltzea eta lantzea da.

11. Zerk bereizten du Jatorman kompetentziatik?
 Jatormanek gaur egun kalitatezko produktu bat eskaintzen du, eta konfiantza transmititzen dio bezeroari; izan ere, urte asko daramazkigunez, beraiek badakite nola egiten dugun lan. Hortaz, gure bereizgarriak kalitatea eta konfiantza dira.